

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea



KAZETARITZA
IKASTURTEA 2019-2020

**ESKOLA ALTERNATIBOAK, HEZIKETA EREDU
EZBERDIN BATEN ALDARRIA**

EGILEA: Nagore Eslaba Guarrotxena

ZUZENDARIA: Iñaki Lazkano Arrillaga

Leioa, 2020eko maiatzaren 25a

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisisia ilustratze aldera”.

AURKIBIDEA

1. Erreportajea

Eskola alternatiboak, heziketa eredu ezberdin baten aldarria	4-18
--	------

1.1 Zatidurak

1.1.1 Ane Ablanadori elkarrizketa	19-21
1.1.2 Eskola alternatiboetan ohikoenak diren pedagogiak	22-23
1.1.3 Ohiko sistemaren barnean, parentesia	24-25
1.1.4 Homeschooling-a	26-27

2. Memoria

2.1 Laburpena	30
2.2 Sarrera	30-31
2.3 Helburuak	31
2.4 Metodologia	32-40
2.5 Ondorioak	40
2.6 Eranskinak	41

Eskola alternatiboak, heziketa eredu ezberdin baten aldarria

Egun indarrean dagoen hezkuntza sistemaren aurrean aukera ezberdin bat eskaintzen duten ikastetxeak dira eskola alternatiboak. Ume bakoitzaren interesak entzun eta bere erritmoa errespetatuz, haurra ikasketa prozesuaren erdigune bilakatzen da bertan, haren beharretara egokitzen den heziketa eskaintzea baitute helburu. Eskola alternatiboen izaera, erronkak eta etorkizun zalantzazkoa dituzte hizpide euren protagonistek, beste hezkuntza bat posible dela sinesten duten hezitzaile, ikasle zein gurasoek.

Urteak dira jada, hezkuntza arautu bat existitzen denetik. Egun edonork du eskubidea hezkuntza duin bat jasotzeko, sei eta hamasei urte artean derrigorrezkoa dena. Hala ere, indarrean dagoen hezkuntza sistema ez da pentsamolde guztietara egokitzen, hezitzaile eta guraso askoren aburuz umearen ikasteko berezko grina zapaltzen baitu eredu tradizionalak.

Haurraren erritmo eta nahiak errespetatzen ez direla defendatuz eta aldarri sendo bati eutsiz, badira bide ezberdin baten eraketari ekin diotenak. Pertsona horiek hezkuntza araututik at kokatzen diren eskolak sortu dituzte: eskola alternatiboak.

Iruñeko Tximeleta, Orioko Zingira edota Muxikako Kortiñe eskolak horren erakusle dira, hezkuntza sistema arautuaren gabeziei aurre eginez bestelako hezkuntza baten alde egiten baitute.

Euskal Herrian gero eta gehiago dira sortzen ari diren eskola alternatiboak, baina askok ez dituzte haien proiektuak ezagutzera ematen eta erdi-ezkutuan aritzen dira lanean. Izan ere, eskola alternatiboak alegalak dira, beren izatea eta funtzionamendua ez dago legez arautua baina ezta ere debekatua.

Beraien artean ezberdinak izan arren, eskola alternatibo guztiek oinarri bera dute. Haurra erdigunean kokatzen dute eta bera bilakatzen da ikasketa prozesuaren subjektua. Metodologia ez zuzentzaileak erabiltzen dituzte eta arauak haurrek eginak dira. Helduaren rola beraz, haurra behatu eta laguntzera mugatzen da, inoiz ez haurrari aginduak ematera. Horrexegatik erabiltzen dute eskola hauetan bidelagun terminoa, irakasle hitza baino askoz egokiagoa iruditzen baitzaie.

Tximeletako guraso Amaia Aretak, Zingirako bidelagun Nerea Lasok eta Kortiñeko bidelagun Jagok, oinarri horiek aski eta sobera ezagutzen dituzte, ezinbestean kontuan hartu behar dituztelako eskolak modu egokian funtziona dezan.

Eskolen jaiotza

Tximeleta eskolak hemezortzi urteko ibilbidea du eta Iruñeko kanpoaldean dago kokatua, Orkoiengo industrialdearen alboan, hain zuzen. Euskal Herrian esperientzia gehien duen eskola alternatiboetako bat da eta Nafarroan sortutako lehena. Mikel Gonzalez irakaslea

izan zen proiektu honen sortzaile nagusia, berak bi urteko ume bat zuen eta harentzat bestelako hezkuntza eredu bat bilatzen hasi zen. Ez zegoen konforme ohiko sistemarekin eta azkenean, beste familia batzuekin elkartu eta egitasmoa martxan jarri zuten.

Tximeleta bost hurrekin zabaldu zen eta egun, hiru eta hamabi urte arteko berrogei umek ikasten dute bertan. Hasierako urteetan bi hezitzaile besterik ez zeuden eskolan eta gurasoek alderdi pedagogikoan parte hartzen zuten, bidelagun rola hartuz. Orain ordea, bost dira eskolan dauden hezitzaileak eta ardura pedagogikoak haien esku geratzen dira. Dena den, gurasoek, bestelako ardurak dituzte.

Tximeleta osatzen duten familien inplikazioa “izugarria” dela dio Amaia Aretak, haiek baitira eskolaren motorra. Baina lan hori guztia gogotsu egiten dute, Tximeletan haien haurrentzat bilatzen zutena aurkitu dutelako: “Gure haurren erritmoa errespetatzea nahi genuen, kanpotik bestelako erritmo bat ezarri gabe”. Umeari autonomia eman eta askatasunez jokatzeko uztea zen bilatzen zutena, ohiko sistemak haurraren askatasuna mugatzen duela uste baitute Tximeletako gurasoek.

“Hasieratik helburu bera izan dugu: haurra subjektu aktibo izatea, bere aldetik autonomia landu eta lortzea”

Nerea Laso – Zingira eskolako bidelaguna

Zingira eskolaren jaiotza oso antzekoa izan zen Tximeletarekin alderatuta. Hala ere, bere ibilbidea laburragoa da, hiru eskolen artean laburrena, duela zortzi urte sortu baitzen. Orio eta Aia artean kokatua dago, Olaskoegia auzoan hain zuzen. Hiru eta hamabi urte arteko haurrak doaz bertara eta orotara hogeit hamar umek osatzen dute eskola, haien zaintzaz arduratzen diren lau bidelagunekin batera.

Sortze prozesuan hezkuntza sistema tradizionalak eskaintzen zuen heziketarekin ados ez zeuden familiak elkartu ziren, haurrei aukera ezberdin bat emateko prest. Hasierako bi urteetan gurasoek hartu zuten hezitzaile edo bidelagun rola, Tximeletan gertatu zen bezala, baina geroz eta familia gehiago batzen ari zirela ikusita, egitasmoan hezitzaileak sartzeko beharra ikusi zuten.

“Hasieratik helburu bera izan dugu: haurra subjektu aktibo bat izatea, bere aldetik autonomia landu eta lortzea”, dio Nerea Lasok. Horretarako bere garapen naturala errespetatzen dute eta helduaren rola, bidelagunarena, haurrari behatzera mugatzen da soilik, hezitzaile eta haurraren arteko harreman ahalik eta horizontalena bultzatuz.

“Eskolaren sortzaileok magisteritza ikasketak amaituta geneuzkan, gazteak ginen eta hain zurruna den ohiko hezkuntzatik aldenduko zen proiektu bat sortzeko gogo geneukan”

Jago – Kortiñe eskolako bidelaguna

Kortiñe eskolaren sorrerak baditu ezberdintasunak beste bi eskolekin alderatuta, ez baitziren gurasoak izan proiektua abian jarri zutenak. Muxika herriko Maume auzoan kokatzen da eskola eta Bizkaia osoan sorturiko lehena da. Hamairu urte pasa dira bertara lehen haurrak heldu zirenetik, baina eskola sortzeko proiektua urte batzuk lehentxeago hasi zen, 2002. urtean, hain zuzen.

Hiru adiskideren ekimena izan zen, Jago eta beste bi kiderena: “Eskolaren sortzaileok magisteritza ikasketak amaituta geneuzkan, gazteak ginen eta hain zurruna den ohiko hezkuntzatik aldenduko zen proiektu bat sortzeko gogoia geneukan”. Hogeita bi eta hogeita bost urteko gazteak ziren sasoi hartan, ilusioz beteriko hiru lagun. Eskola alternatibo gehienen proiektuen atzean gurasoak egoten dira, baina kasu hau ezberdina izan zen, indarrean dagoen hezkuntza sistemari gabezia asko antzematen zizkioten gazteak izan baitziren ekimenaren sortzaile.

Gabezia horien artean lehena eta haien ustez okerreana, haurrarekiko konfiantzarik eza zen. Hori ez zen inolaz ere, bakarra izan, beste hainbat zeuden: uniformetasuna, pentsatzeko era bakarra zabaltzea, emaitzei prozesuari baino garrantzi gehiago ematea, sentimenduak erreprimitu eta emozioei garrantzirik ez ematea, haurren nahiak kontuan ez hartzea, irakaslea erdigune bilakatzea eta orokorrean, haurraren beraren sortzeko eta ikertzeko grinarekin bukatzea. Eskola bat sortzea ez da lan erraza, gainera, hasierako urte horietan Bizkaian ez zegoen beste eskola librerik. Hortaz, eredu berrien bila Bizkaitik kanpo abiatu ziren, hezkuntza alternatiboaren munduan murgildu eta proiektu berritzaile ezberdinak ezagutzeko.

Beste proiektu batzuk ezagutzeak sortuko zuten eskolaren oinarriak finkatzen lagundu zien, eta pedagogia aktibo ezberdinetatik edanda ezarritako printzipioak hurrengoak izan ziren: haurrak autonomia eta inizatiba izatea, bakoitzaren erritmoak errespetatzea, jakin-min edo kuriositate naturala mantentzea, pertsona libreak lortzea eta autodiziplina lantzea.

Hortaz, gogotsu, eskola sortu eta irekitzera animatu ziren. 2007ko irailean heldu ziren Kortiñera lehen umeak eta geroztik, indar handia hartu du eskolak, egun hirurogei ume baitaude.

Lehen bost urteak Berangon pasa zituzten eta 2012. urtean ezagutu zuten Maume, eskolaren gaur egungo kokalekua. Naturarekin harremanetan egoteko gogoia izan zen leku aldaketa horren bultzatzaile nagusia: “Izaki moduan ugaztun bat gehiago gara eta ugaztun moduan natura behar dugu, Maume nekazal auzo bat izanik leku paregabea irudi zitzaigun haurrentzat”.

Begirada atzerantz botata zera dio Jagok familien inguruan: “Hasieran hippyak etorriko zirela uste genuen, komunitateetan bizi zen jendea”. Dena den, ez zen inolaz ere horrela izan. Haien haurrentzat bestelako hezkuntza bat bilatzen duten gurasoak dira Kortiñera

gerturaten direnak. Familia “oso anitzak” direla dio, elkarren artean ezberdin direnak baina komunean aldaketarako gogo hori dutenak.

Esan bezala, hirurogei haur dira uneotan Kortiñen ikasten dutenak. Hiru eta hemezortzi urte arteko haur eta gazteak dira, Haur eta Lehen Hezkuntza eskaintzeaz gain, Bigarren Hezkuntza eta batxilergoa bertan egiteko aukera ere ematen baitu eskolak. Azken bi horietan titulua lortu ahal izatea da trabarik nagusiena, baina horretarako badituzte alternatibak. Hala nola, atzerriko eskoletan online ikasteko aukera. Izan ere, Estatu Batuetan hainbat eskola daude bi zikloetako tituluak lortu eta geroago Espainian homologatu ahal izateko.

Asanblada, funtzionamenduaren ardatz

Eskola alternatiboek demokratikotzat jotzen dute haien burua eta horri jarraiki, eskola barneko erabaki guztiak modu asanbleario eta horizontalean hartzen dituzte.

“Kortiñen ostiralero asanblada orokorrak egiten ditugu asteko erronkak edota gatazkak partekatzeko”. Bidelagunentzat ume guztien partaidetza “funtsezkoa” dela nabarmendu du Jagok, garrantzi handia ematen diotelako iritzi ezberdinak plazaratzeari eta gertatutakoa ikuspuntu ezberdinetatik aztertzeari.

Haur eta hezitzaileen arteko asanbladez gain, badira familia eta bidelagunen arteko asanbladak ere. Izan ere, taldean egiten dute lan eta hezitzaileek eskolaren funtzionamenduan ardura nagusia duten arren, familien papera ezinbestekoa da eurentzat: “Familiak Kortiñeko motorra dira, haien konfiantza eta inplikaziorik gabe gure proiektua ez litzateke posible”.

“Astean zehar hurrek dituzten kezkak edo arazoak koaderno batean idazten dituzte eta ostiralero asanblada egiten dute bidelagunekin idatzitako guztia denon artean partekatzeko”

Amaia Areta – Tximeleta eskola gurasoa

Tximeletan funtzionamendua asanblearioa den arren, antolaketa bestelakoa da, gurasoek kudeatzen dituztelako eginbehar guztiak. Familien artean lana aurrera eraman ahal izateko batzordetan antolatzen dira, hiru arlotan zehazki: mantentze-lanen batzordea, finantza batzordea eta batzorde pedagogikoa, azken horrek bidelagunen taldearekin batera egiten du lan. Edozein erabaki hiru komisioetatik eta bidelagunen taldetik pasa behar da onetsi eta aurrera eraman ahal izateko.

Zingiran funtzionamendu bera daramate, eskola gurasoena delako eta beraiek dituztelako ardura nagusiak. Batzorde pedagogikoa, mantenu lanez arduratzen den zerbitzu batzordea eta kontabilitateaz arduratzen den batzorde ekonomikoa. Izenak ezberdinak izan arren,

antolaketa bi eskoletan parekoa da, eta Zingiran ere edozein erabaki batzorde guztietan onartu beharra dago, horretarako asanbladak egitea ezinbestekoa bilakatzen delarik.

Asanblada horien emaitzak askotan eskola osoarentzako arauak izaten dira hiru eskoletan. Kortiñen lehen urtean oinarrizko elkarbizitza aurrera eramateko arau batzuekin hasi ziren, hamar ingururekin. Urtez urte ordea, arauen zerrenda hori luzatuz joan da, berrogeita hamar arau baino gehiago finkatu arte. Biltzarretan, bidelagun eta haurren artean sortzen dituzte arau guztiak eta helburu nagusia bizikidetzaren orekatu eta osasuntsu bat lortzea dela dio Jagok.

Tximeletan ere haurrak dira arauen sortzaile, asanblada bidezko mekanismo jakin bat jarraitzen dute araudia bete ahal izateko: “Astean zehar hurrek dituzten kezkek edo arazoak koaderno batean idazten dituzte eta ostiralero asanblada egiten dute bidelagunekin idatzitako guztia denon artean partekatzeko”. Kezka edota arazo horien aurrean hartu beharreko neurriak hurrek proposatzen dituztela azaldu du Aretak, gerora egoera horiek berriro errepika ez daitezken. Beraz, araudirik bada baina ez da kanpotik inposatzen, ez du irakasle batek ezartzen, umeen ekimenez sorturikoa da.

Pedagogia alternatiboak

Eskola alternatiboek pedagogia ezberdinetatik edateko joera dute, ez dute bat eta bakarra jarraitzen. Izan ere, askoz aberasgarriagoa iruditzen zaie hainbat pedagogiatatik hartutako alderdi ezberdinekin oinarri sendo bat osatzea.

Pedagogia hauei alternatibo esaten zaie ohiko hezkuntza sistemaren aurrean aukera ezberdin bat proposatzen dutelako, dena den, aktibo, libre edota berritzaile izenekin ere dira ezagunak.

Eskola bakoitzean pedagogia batzuk beste batzuen aurrean gailentzen diren arren, Tximeleta, Zingira eta Kortiñen oso antzekoak dira erabiltzen dituzten oinarri metodologikoak.

Tximeleta eskolaren hastapenetan Summerhill pedagogiaren ildoak hartu zuten oinarri gisa, baina orain, eskola libre bat den heinean, egile ezberdinak erreferente moduan dituztela azaldu du Aretak: “Nagusiki hiru dira kontuan hartzen ditugunak: Rebeca eta Mauricio Wild, Montessori eta Waldorf”.

Zingiran ere, antzeko ildoak jarraitzen dute, metodologia bat zurrunki jarraitzeari ez baitiote zentzurik ikusten. “Pedagogia zehatz bat jarraitzeak aukerak murriztu egiten ditu, egile ezberdinen ideiak batuz hurrei hezkuntza ahalik eta osatuena eskaintzen saiatzen gara”, dio Lasok. Summerhill eta Montessori dira gehienbat eskolaren oinarri pedagogikoaren ardatza.

Kortiñen ordea, bestelako ikuspuntua dute pedagogiekiko: “Ez dugu metodologietan sinesten, testuingurua asko mugatzen dutela uste dugu eta horren ondorioz ez ditugu pedagogia jakin batzuk jarraitzen”. Nolanahi ere, Jagok onartu du badirela ardatz gisa hartzen dituzten bi egile: Maria Montessori eta bereziki, Rebeca eta Mauricio Wild.

Aipatzekoa da hiru eskoletan Montessori pedagogia aintzat hartzen dutela. Areta, Laso eta Jagok pedagogia honetan erabiltzen diren materialen garrantzia eta erabilgarritasuna azpimarratu dute. Bidelagunen zeregina material horiek oinarri hartuta giroak sortzea da, gerora umeak independenteki jolas dezan. Esperimentatzeko, haurren jakin-mina pizteko eta autorregulazioa lantzeko bide baliagarria dela nabarmendu dute, hiru eskoletan jartzen baitute martxan praktika hau.

Espazioak zaintzearen garrantzia

Haurren autonomia garatzeko espazioak zaintzeak garrantzi handia du eskola alternatiboetan. Horren ondorioz, kontu handiz antolatzen dute eskolaren bazter bakoitza.

Tximeletan heziketa modu zabalean ulertzen da, gizakiaren arlo guztiei ematen zaie garrantzia. Hortaz, ikasketa ez dute kontzeptu edo edukietara mugatzen, alderdi emozional eta afektiboa lantzeak garrantzi handia du haientzat: “Gure eskolan haurren sormena mugarik gabe lantzea ahalbidetzen da, esperimendarioari uneoro bide emanez”. Baina esperimendario hori behar den moduan eman dadin eta alde emozionala garatu ahal izateko, espazioei arreta jartzea ezinbestekoa bilakatzen da.

Eskola “etxe erraldoi” bat izango balitz bezala definitzen du Aretak, barnealde zein kanpoaldea oso zainduta dituen. Barnealdean plastika gela, psikomotritate gela, musika gela, zurgindegia, jangela eta sukaldea aurki ditzakegu. Horiez gain, bi espazio nagusi ere badaude, bata sei urte arteko haurrentzat, eta bestea, sei urtetik gorakoentzat. Bigarren hori gelarik prestatuena dela azaldu du Aretak, ordenagailuak, Montessori erako materialak edota sofak dituztelako.

Gainera, haur hezkuntzatik lehen hezkuntzara pasako diren umeentzako beste gela handi bat dute, trantsizio horretan egokiak izan daitezkeen materialekin. Hiru gela horiek banatuta egon arren, haurrak toki batetik bestera nahi duten eran mugitzen dira, beti ere bidelagunen kontrolpean. Haien egiteko nagusia haur guztiak behatzea da, bakoitzaren interesak igarri eta lantzeko bitartekoak jartzea. Kanpoaldean aldiz, zuhaitzak, belardia, harriak edota makilak dituzte, haurrek haien trebetasunak gara ditzaten nahi duten moduan jolastuz eta naturarekin kontaktuan egonez.

“Inoiz ez diegu esaten zer eta nola egin, haurrei gure prestutasuna erakustea da bidelagunen eginbehar nagusia; laguntzeko prest gaudela adieraztea, besterik ez”

Jago – Kortiñe eskolako bidelaguna

Kortiñen aldiz, bestelako antolaketa bat dute. Adinen arabera banatutako hiru giro nagusitan diseinatuta dago eskola: hiru eta zazpi urte arteko espazioa, zazpi eta hamahiru artekoa eta hamahiru eta hemezortzi artekoa. Giro horiek prestatuta izanik, bidelagunek bilatzen dutena da ume bakoitzak eguna nahi duen moduan antolatzea, libreki mugitu eta jolastea: “Inoiz ez diegu esaten zer eta nola egin, hurrei gure prestutasuna erakustea da bidelagunon eginbehar nagusia; laguntzeko prest gaudela adieraztea, besterik ez”. Gazteen kasuan, eskolaren solairu oso bat dute haientzat, hor duten material guztiarekin interesekoak zaizkien gaiak finkatu eta horiek lantzean zentratzen dira, beti ere hasi eta amaitzeko konpromisoa hartuz.

Eskola barruko espazioaz gain, kanpoko ere hartzen dute kontuan. Kortiñen zein Zingiran asko baloratzen dute eskola natur eremuan kokatua egotea, ingurune naturalak haurrari onura asko eskaini diezaiokiokeela uste dutelako. “Zingiratik hamar minutura pagadi handi bat daukagu eta eskola parean ibaia”, dio Lasok. Horrez gain, jolasteko belardi zabala eta hurrek landutako baratza dute ere. Autonomia garatzeko aukera paregabea ematen diete hurrei horrelako bazterrek.

Zingiraren barrualdean haurren neurria egindako sukalde bat, egongela baten itxura duen liburutegi bat, espazio handiko bi gela, psikomotrizitate tokia eta batzarrak egiteko txokoa dituzte. Horiei esker haurrentzat naturalagoa den errutina bat eskaintzen dutela azaldu du Lasak, etxeko giroa baita nagusi eskolan.

Gurasoen apustua

Arrazoi ezberdinengatik erabakitzen dute gurasoek beraien haurrak eskola alternatibo batean hezitzea, hezkuntza ezberdin baten aldeko apustua egitea. Koldo Zabalza, Inma Ducay eta Rocio Ramosen kasuek agerian uzten dute arrazoi horien ugaritasuna, bakoitzaren ibilbidea ezberdina baita. Uneotan hiruren artean bakar batek ere ez ditu haurrak eskola alternatibo batean, baina soberan dakite nola funtzionatzen duten eta zeintzuk diren haurrari eskaini diezaioketen onurak.

Koldo Zabalzak bi haur ditu, egun Bernart Etxepare Ikastetxe Publikoan ikasten dutenak. Sistema publikoan sartu baino lehen Tximeleta eskola alternatibora eraman zituen hiru urtez, eta orain, eredu tradizionala eta alternatiboa konparatzeko aukera izanik, Tximeletaren proiektua “ezinhobea” iruditzen zaiola aitortu du.

Haur nagusia eskolara eramateko unea heldu zenean bere espazioa eta erritmoa errespetatuko zituen leku bat bilatzen hasi ziren, baina azkar ikusi zuten hezkuntza publikoan ez zegoela haiek bilatzen zuten arreta hori eskainiko zuen ikastetxerik. Bai ordea, sistema tradizioaletik at zeuden eskoletan: “Aukera ezberdin bat zegoela ikusi genuen non gure haurra bere ikasketa prozesuaren protagonista izango zen”.

Une horretan Tximeletara joateko erabakia hartu zuten etxean, baina esan bezala, denboraldi baterako erabakia izan zen bakarrik. Arrazoi ezberdinek eragin zuten

Tximeletatik irtetea, guztien artean pisutsuena ekonomikoa izan zen: “Edonork ezin dezake eskola alternatibo baten kuota ordaindu, guretzat asko suposatzen zuen hilero hirurehun euro ordaintzeak”.

Bere hurrek metodologia aktiboen bitartez ez ikasteak pena ematen dio orain, baina argi dauka pedagogia berritzaileak eskola publikoetan martxan jartzea bideraezina dela. Izan ere, ratioak jaisten ez badira ezer gutxi egin daiteke: “Kalitatezko hezkuntza bat eskaintzeko ikasgelak zortzi ikaslekoak izan beharko lirateke, ez hogeita bostekoak”.

Orain, ikastetxe publikoan, konforme dagoela dio. Hala ere, eskola pasiboagoa iruditzen zaio, gurasoen aldetik konpromisorik eskatzen ez duena. Bidelagunekiko Tximeletan aurkitu zuen konfiantza, familien motibazioa eta haurren autonomia botatzen ditu faltan.

Arras ezberdina da Inma Ducayren kasua. Eskola tradizionalak seme-ari kale egin zionean hartu baitzuen hezkuntza alternatiboaren bidea. Ohiko sistemaren parte zen eskolan bere haurrak test batzuk egin behar zituela esan zioten, arreta gabezia zeukala egiaztatu ahal izateko. Probak egin ondoren erantzuna positiboa izan zen eta Ducayk ez zuen eskolak ipinitako erremedioa begi onez hartu: “Arreta gabeziarekin amaitzeko era bakarra pilulak zirela esan zidaten eskolan, nik argi nuen ez nuela Ibai medikatu nahi”.

Horren aurrean konponbide berriak bilatzen hasi zen eta hezkuntza alternatibora aldaketa egitea ideia ona izan zitekeela pentsatu zuen. Biotzari herrian Bigu School izeneko eskola aurkitu zuen, sistemarekin konforme ez zeuden guraso ezberdinek osatutakoa.

Ibaik zortzi urte zituen Biotzarira heldu zenean, baina harrez geroztik emandako aldaketa “sekulakoa” izan zela dio Ducayk. Denbora asko zeraman Ibai larrituta ikusten, eskolara joateko gogorik gabe. Bigu School-era sartu ostean, goizetan motibatuta esnatzen zen, iratzargailuaren beharrik gabe askotan. Gainera, aldaketak maila guztietan eman ziren, azazkalak jateari utzi zion eta begietan zeukan nerbio-tika kendu zitzaion. Ducayk argi du bere semeak beti eskertuko diola sistema aldaketa. “Orain hogeita bat urte ditu eta Bigu School-en emandako urteak bere haurtzaroaren oroipen onenatarikoak bezala ditu gordeta”.

Patu gordinak, berriz, bultzatu zuen Rocio Ramos hiru seme-alabak eskola alternatibo batean heztera. Haurrak txikiak zirenean, jada eskolatzeko adina zeukatenean, senarrak eta berak etxean heziko zituztela erabaki zuten, ez zeuden sistema tradizionalarekin konforme eta haien bizitza estiloari jarraiki homeschooling-aren aldeko apustua egitea iruditu zitzaient egokiena: “Herri txiki batean bizi ginen, naturan murgilduta eta hirigunetik aparte, haurrak etxean hezitzeak gure bizimoduarekin lasaitasunez jarraitzea baimentzen zigun”.

Gauzak bere senarra hil zenean aldatu ziren, Ramosek ordura arte umeei emandako heziketa berdinarekin jarraitu behar zuela sentitzen zuen, etxean hezitzearen apustuarekin. Baina doluaren fasean, egoerak gainezka egin zion: “Oso gogorra izan zen,

denbora behar nuen niretzako eta orduan eskola bat bilatzea erabaki nuen, eskola alternatibo bat”.

Etxean jasotzen zuten heziketa oso antzekoa zen eskola alternatiboan jasotzen zutenarekin: “Nire haurren erritmoa errespetatzea, haien interesak ezagutzea eta ahal zen neurrian laguntzea zen nik bilatzen nuena”.

Bigarren hezkuntzara jauzia emateko unea heldu zenean, etxera buelta egin zuten berriz. Ramosek eskola amerikar batean apuntatu zituen bere haurrak, DBH-ko titulua urrutitik atera eta gerora homologatu ahal izateko.

Orain, bizipen guztiak kontuan hartuta eta begirada atzera botatzen duenean galdera asko planteatzen dizkio bere buruari: “Askotan pentsatzen dut ea zergatik konplikatu naizen hainbeste, zergatik ez ditudan nire haurrak eskola arrunt batera eraman”. Galdera horiei erantzuten saiatzen denean hurrekin erlazionatzeko beste modu bat bilatu izan duela dio, irakasle eta ikaslearen arteko autoritate harreman horrekin apurtu nahi zuen bere haurrak pertsona askeagoak izan zitezten.

Autogestioa oinarri

“Ez dugu lege babesik, gure eskolak ez dituzte eskola moduan onartzen eta ez dugu inolako diru laguntzarik jasotzen”. Aretak argi du uneotan aurrera egiteko era bakarra eskola pribatuak izatea dela, ekonomikoki familiek sostengatzen dituzten eskolak. Baina horrek ondorio ezberdinak ditu.

“Lehentasun kontua da hau, nire soldata edonork daukanaren parekoa da, ez dut dirua soberan baina nire haurren heziketan inbertitzea erabaki dut”

Amaia Areta – Tximeleta eskolako gurasoa

Eskola pribatuak izanda hilero ordaindu beharreko kuotak oso altuak izaten dira, kasu gehienetan hirurehun euro inguru ordaintzen dituzte gurasoek. Horren ondorioz gainera, eskola alternatiboek kritika ugari jasotzen dituzte: “Askotan entzuten dugu eskola alternatiboak elitista edota klasistak direla, baina ez da inolaz ere horrela”.

Prezio altuen ondorioz sortzen diren kritika horien aurrean, Aretak erantzun argia du: “Lehentasun kontua da hau, nire soldata edonork daukanaren parekoa da, ez dut dirua soberan baina nire haurren heziketan inbertitzea erabaki dut”. Eskolan familia aberatsik ez dagoela baieztatu du, gakoa apustua egitean datza bere ustez, dirua zertan utziko den argi izatean, alegia.

Lasok bat egiten du Aretak dioenarekin, argi duelako Zingirako kuota ezin duela edonork ordaindu. Baina berak alde positiboa ateratzen dio honi guztiari: “Ekonomikoki egin

beharreko esfortzua oso handia da, baina honek guztiak, zaila bada ere, beste hezkuntza bat posible dela erakusteko balio digu”.

Horrez gain, eskola alternatiboak elitistatzat hartzen dituzten horiei langileen egoeraren inguruko ezjakintasuna leporatzen die: “Bidelagunok dauzkagun baldintzak kaskarrak dira, jendeak horren berri edukiko balu ez dut uste proiektu hauek elitistatzat joko lituzkeenik”.

Hala ere, argi dute kuota altuen kontua oztopo bilaka daitekeela haien haurrak horrelako eskola batera eraman nahi eta ezin dituztenentzat. Izan ere, gerta daiteke prezio horiek ordaindu ezin izatea eta ondorioz, matrikulatze unean atzera botatzea.

Eskola autogestionatuak izanik, hilerio ordaintzen diren kuotez gain bestelako diru iturriak bilatzen saiatzen dira, gastu guztiei aurre egiteko batzuetan beharrezkoa izaten delako. Hiru eskoletan adibidez, formakuntza zein tailerrak antolatzen dituzte eta horien bidez plus bat lortzen dute. Zingiran, bi ekimen horiez gain, eskola osatzen duten gurasoek kanpin bat dute, eskola parean kokatuta dagoena: “Gurasoek kudeatzen dute kanpinaren funtzionamendua, udan egoten da irekita eta horren bidez eskolak diru iturri egonkor bat bermatuta dauka”.

Etorkizunera begira, Aretak eta Lasok urrun ikusten dute eskola alternatiboek diru laguntzak jasoko lituzketen eguna. Jagok, ordea, konbentzimendu osoz dio Kortiñe guztiz autogestionatua dela eta horrela jarrai dezan nahi dutela. Izan ere, diru laguntzak jasotzeak baldintza batzuen onarpena dakarrela uste du: “Guk ez dugu instituzioen onarpena bilatzen horrek programa bat jarraitu eta betetzera eramaten gaituelako, ez dugu uztaitik pasa nahi”.

Ebaluazioaren gailentzea kalifikazioaren aurrean

Ohiko hezkuntza sisteman ikasleen gaitasunak zenbakiz neurtzen dira, kalifikazioen bidez. Eskola alternatiboetan ordea, ez diete erabilgarritasunik ikusten kalifikazioei eta gainera, kaltegarriak direla uste dute.

“Eskola tradizionalak hezitzeko duen moduaren ondorioz, haurren helburua azterketa gainditzea bihurtzen da, suspentsorik ez edukitzea, horrek gerora zigorra ekarriko duelako”

Amaia Areta – Tximeleta eskolako bidelaguna

“Kalifikazioen bidez ikasleari zer falta zaion nabarmentzen da, ikasle bakoitzaren zailtasunak zeintzuk diren eta zertara ez den heltzen zehazten du irakasleak”, dio Jagok. Kortiñen haur bakoitzaren ibilbidea ebaluatu behar dela defendatzen dute, modu batean edo bestean denak doazelako aurrera eta inor ez doalako ez okerrago, ez hobeto.

“Ume bakoitzak bere bidea egin behar du, ez programa batek markatzen diona”

Nerea Laso – Zingira eskolako bidelaguna

“Zingiran ebaluazioa umeari egindako behaketan oinarritzen da, bidelagunok prozesu naturalei erreparatzen diegu gehienbat”. Haurraren autonomia edota erlazionatzeko gaitasunak dira aztertzen dituztenak. Lasoren aburuz, ikasketa prozesuan ez da presarik egon behar, horrek haurrari ez diolako onik egiten: “Badira sei urterekin ederki idazten duten haurrak eta hamar urterekin oraindik idazteko zailtasunak dituztenak, baina guri horrek ez gaitu kezkatzen”. Haur bakoitzaren interes eta erritmoak errespetatu behar direla azpimarratu du, hamar urte dituen horrek beste mila interes eduki baititu pasa diren urte horietan zehar. “Ume bakoitzak bere bidea egin behar du, ez programa batek markatzen diona”.

Tximeletan bat egiten dute kalifikazioen inguruko pentsaera horrekin. Gainera, hezkuntza sistema tradizionalak kalifikazio eta azterketen bidez haurraren “presio izugarria” eragiten duela azaldu du Aretak. “Eskola tradizionalak hezitzeko duen moduaren ondorioz, haurren helburua azterketa gainditzea bihurtzen da, suspentsorik ez edukitzea, horrek gerora zigorra ekarriko duelako”. Ondorioz, haurrak ez du ikasketaz gozaten, presiopean edukiak memorizatu egiten dituelako: “Ikasteko nahia berezkoa da haur guztietan eta azterketek nahi hori galarazi egiten dute, haurrak ezagutzarekiko maitasunagatik ikasi beharrean, suspentsoari dion beldurragatik ikasten du”.

Kalifikazioek gainera, kalte handia eragin dezaketela uste dute hiru eskoletan, konparaketa eta lehiakortasunari bide ematen dietelako eta horrek haurraren autoestimua arazoak sor ditzakeelako.

Bigarren Hezkuntzara jauzia

“DBH-rako jauzia familien artean sortzen den kezkarik nagusiena da”, dio Aretak. Unea heltzen denean gurasoak urduritzen hasten dira, haurrak sistema arruntean ondo moldatuko diren galdetuz. Hala ere, Tximeletan arreta handiz landu dute jauziaren gaia eta seigarren mailan dauden haurrek talde pedagogikoaren aldetik behar duten arreta guztia jasotzen dute.

Duela bi urtera arte “prestakuntza urtea” delakoaren bidez funtzionatzen zuten. Institutura pasako ziren ikasleentzako ohitze tailerrak prestatzen zituzten, eta horien bidez eurentzat ezezagunak ziren zenbait gauza, azterketak adibidez, landu eta barneratzen zituzten. Sistema konbentzionalaren funtzionamendua imitatzen zuten, nolabait.

Orain ordea, beste modu batean antolatzen dute ohiko sistemara moldatzea. Jauzia egingo duten haur guztientzat tutoretza pertsonalizatuak eskaintzen dituzte, ume bakoitzak

zuzendu edo landu behar dituen alderdiak jorratzeko. Ez dute beharrezkoa ikusten azken urtea ohiko sistemaren dinamikara egokitzea. Gainera, momentura arte, emaitzak lehen bezain onak izan dira, eskolan horien berri izaten baitute.

Egun Tximeleta osatzen duten gurasoak ikastetxeko guraso ohiekin elkartzen dira, Bigarren Hezkuntzan haien seme-alaben esperientzia nolakoa izan den jakiteko. Beharrezkoa ikusten duten guztietan bilerak egiten dituzte, haur bakoitzaren moldatze prozesua nolakoa izan den entzuteak asko lasaitzen baititu oraindik jauzia egin ez duten haurren gurasoak.

Horrez gain, guraso ohiak Bigarren Hezkuntzako irakasleekin hitz egiteaz arduratzen dira, horrela jauzia emango duten gurasoei lagungarriak izan ahal zaizkien aholkuak eman diezaizkiekete. Aretak dioenaren arabera, orokorrean oso positiboa da guztiek kontatzen dutena: “Irakasleek haur langile eta parte hartzaileak direla diote, kuriositate eta ikasteko gogo handia erakusten dutenak”.

“Zingiratik atera diren haurrek ez dute sistema arruntera egokitzeko arazorik euren aurreko heziketan kalterik jaso ez dutelako”

Nerea Laso – Zingira eskolako bidelaguna

Zingiran, Tximeletan egiten duten gisan, gurasoek Bigarren Hezkuntzako irakasleekin hitz egiteko ohitura dute. Hemen ere irakasleen aldetik jasotzen dituzten komentario guztiak onak izaten dira: “Arazoei aurre egiteko eta egoera berriei egokitzeko gaitasun handiko umeak direla esaten dute”.

Lasok jauziari beldurrik ez zaiola eduki behar azpimarratu du, ume horiek altzoan daramaten motxila “oso egonkorra” delako. Bere ustez, haurraren lehen urteak oso garrantzitsuak dira, haurtzaroan jasotako heziketak pertsona bakoitzaren ibilbidea baldintza dezakeelako: “Zingiratik atera diren haurrek ez dute sistema arruntera egokitzeko arazorik euren aurreko heziketan kalterik jaso ez dutelako”.

Horrez gain, haur horiek sistema tradizionalan gehiegi lantzen ez diren giza gaitasun batzuk menperatuta dituztela dio, egokitze prozesu horretan lagungarriak izan daitezkeenak: “Erlazioetarako zein egoera berrietara egokitzeko gaitasuna, edota autonomiaz erabakiak hartzeko ahalmena oso landuta daramatzate”.

Hala ere, Aretak onartu du eduki batzuetan ez daukatela ohiko sisteman ikasi duten haurren maila bera, baina azkar lortzen dute eduki horiek eguneratzea. Huts horiek matematiketan zein hizkuntzetan izaten dituzte gehienetan: “Ingelesean ez daramate inolaz ere beste haurren maila”. Haur bakoitzak bere interesekoak diren gaiak landuagoak daramatzala zehaztu du, Tximeletan bakoitzak gustukoak dituen edukietan sakontzen duelako.

Zingiran ere ingelesa da hutsunerik handiena, baina bidelagunak horretaz kontziente dira: “Ingelesa lantzea agendan daukagun erronka guztietako bat da, ikasle ohiek horretan makal ibiltzen direla nabarmentzen dutelako”.

Ikasleak jauziaren aurrean

Urteak pasa dira Oihane Lazkanoiturburuk eta Uxue Lasak sistema alternatiboa utzi eta tradizionala ezagutu zutenetik, baina denbora dezente pasa den arren, biek dituzte gogoan haurtzaroko oroitzapenak. Eta, bereziki, eskola alternatiboa utzi eta Bigarren Hezkuntzara egindako jauziaren gordina.

Lazkanoiturburuk Zeraingo Eskola Txikian ikasi zuen zortzi urte bete zituen arte. Eskola Txikiak ohiko sistemaren barneko eskolak dira, baina funtzionamendu aldetik eskola alternatibo baten oinarriak jarraitzen dituztenak. Beraz, bertan jasotako heziketa eskola alternatibo batean jasotakoaren parekoa izan zen.

Zeraingo eskolak ikasle gutxi zituen eta bertan lehen hezkuntzako bigarren mailara arte ikasteko aukera eskaintzen zuten bakarrik. Hortaz, zortzi urterekin sistema tradizionalera jauzia egin behar izan zuen. Aldaketa urte hori da bereziki berak gogoan duena: “Hamalau urte pasa dira baina aldaketaren une hori oso ondo gogoratzen dut, benetan gogorra izan zen niretzat”.

Lasak beranduago egin zuen jauzia, hamabi urterekin zehazki. Tximeleta eskolan ikasi zuen eta bertan Bigarren Hezkuntzako zikloa egiteko aukerarik ez dagoenez Biurdana institutura joan behar izan zen, sistema tradizionalera jauzi eginez.

“Aldaketa izugarria izan zen, dena zen ezberdina, berria”. Tximeletan “eserita egoteko eskolak” deitzen zieten ohiko sistemaren parte ziren eskolei, horietan, liburuak eta azterketak aurkituko zituztela bazekiten, baina soilik hara joan behar zirela imajinatzeak urduritasuna eragiten ziela du gogoan.

Lazkanoiturburuk Lazkaoko ikastolara egin zuen jauzi eta berarentzat ere aldaketa nabaria izan zen. Lehen egunak kaos handia izan ziren eta “guztiz galdua” sentitzen zela onartu du. “Gelak handiegiak ziren, haur asko geunden ikasgela bakoitzean eta alde batetik bestera presaka aritzen ginela iruditzen zitzaidan”. Horrez gain, irakaslearekin zeukan konfiantza eta Zeraingo giroaren berotasuna botatzen zituen faltan.

“Aldaketa urtea gogorra izan zen baina aurreko urteetatik ikasita neramanak pertsona moduan haztea egin dit”

Uxue Lasa, Tximeleta eskolako ikasle ohia

Lasari ere gauza askok deitu zioten arreta: “Aldaketaren unea heldu zenean galdua sentitzen nintzen, ikaskideen erritmo azkarrak harritu ninduen gehien”. Ez zegoen ohituta

ordutegi bat finkatu eta jarraitzera, ikasgai bakoitzerako liburu jakin bat edukitzera eta lanak bakarka egitera.

Aldaketa egin aurretik etxean gurasoak kezkatuta ikusten zituela du gogoan Lazkanoiturburuk: “Amak eskolako bidelagunei etxeko lanak bidaltzen hasteko eskatzen zien, Lazkaora heltzerakoan hain galduta ez ibiltzeko”. Ohitze prozesuak martxan jarri zituzten orduan Zerainen, hala ere, Lazkanoiturburuk uste du ez zela nahikoa izan, ikasgai batzuetan bere burua makal ikusi zuelako.

Ingelesa izan zen, hain zuzen, erronkarik nagusiena, ikasgai guztien artean zailena: “Zerainen oso gutxi lantzen genuen, Lazkaora heltzerakoan ezinezkoa egiten zitzaidan ingelesezko etxeko lanak ulertzea eta horrek asko estutzen ninduen”.

Beldurrez eta urduri joaten zen eskoletara, hilabeteak behar izan zituen lasai joaten hasteko: “Goizetan negar egiten nuen, ez nuen eskolara joan nahi”. Hala ere, emozionalki aldaketa horrek suposatu zion guztia kontuan hartuta eta jakinda edukien aldetik ez zeramala beste ikaskideen maila, Lazkanoiturburuk argi du gaur egungo hezkuntza sistemak aldaketa bat behar duela. Izan ere, horren harira erabaki zuen magisteritza ikastea; etorkizunean aldaketak ematearen itzaropena duelako eta beste hezkuntza sistema batean sinesten duelako.

Tximeletan pasatako urteez oroitzapen oso onak gordetzen ditu Lasak, eta une honetan DBH-ra heltzerakoan izandako zailtasunak bigarren mailan ikusten ditu: “Aldaketa urtea gogorra izan zen baina aurreko urteetatik ikasita neramanak pertsona moduan haztea egin dit”.

Orain pertsona kritikotzat du bere burua eta horretan Tximeletak “zerikusi handia” izan duela aitortu du. Sormena mugarik gabe lantzea eta errotuta daudela diruditen dogmak zalantzan jartzen erakustea eskertzen dio Tximeletari.

Etorkizun nahasia

Eskola alternatiboak hezkuntza sistematik kanpo sortzen diren proiektuak dira, oso zaila baita sistemaren barnean gisa honetako eskolak sortzea. Aretaren aburuz, eskola alternatiboen gakoak ezin dira hezkuntza sistema tradizionalan aplikatu, eta Jagok bat egiten du horrekin, sistema tradizionalaren helburuek talka egiten dutelako beraiei pentsamoldearekin: “Hezkuntza sistemaren helburua patroi bat onartzea da, bereizketarik ez egotea eta uniformetasuna lortzea, hori baita komeni zaiona”.

“Argi dago azken urteotan pedagogia berritzaileekiko interesa handitu dela geroz eta proiektu gehiago jaiotzen ari direlako”, dio Aretak. Hala ere, benetan aldaketa bat eman ahal izateko hezkuntza sistemaren alderdi asko aldatu beharko lirakeela uste du, lehena ratioena. Izan ere, ratioak jaitsi ezean pedagogia berritzaileak martxan jartzea ezinezkoa

dela pentsatzen du, haur bakoitzari eskaini behar zaion arreta berezi hori ematea bideraezina bilakatzen delako.

“Hezkuntza Sailak eskola alternatiboen proiektuak zaindu eta balioetsi beharko lituzke, gizartean ezagutzera eman eta benetan kontuan hartzeko”

Jago – Kortiñe eskolako bidelaguna

Edonola ere, aldaketarako gakoetako bat hezitzaile eta ikaslearen arteko harremanean egon daitekeela uste du Jagok, eta hori sistemaren barnean aldatzea posible ikusten du: “Heziketa bi pertsonen arteko erlazioan gertatzen den zerbait da eta helduak umearikiko duen begirada aldatzen bada, bere parean jartzen bada, aurrerapauso bat eman daiteke”.

Euskal Herrian dauden eskola alternatibo askok ez dituzte haien proiektuak ezagutzera ematen. Jagok dioenaren arabera, erabaki hori eskola hauek daukaten babes eta aitortza faltagatik hartzen dute: “Hezkuntza Sailak eskola alternatiboen proiektuak zaindu eta balioetsi beharko lituzke, gizartean ezagutzera eman eta benetan kontuan hartzeko”.

Lasoren ustez gobernuak ez du onartzen hezkuntza sistemak aldaketa bat behar duenik eta proiektu alternatiboak ukapen horren ondorioa direla dio. “Umeez presio gehiegi jasaten dute eskola konbentzionalean; behartuta doaz, etxeko lanez gainezka ibiltzen dira eta astero kontrolak jartzen dizkiete”.

Jagok ez du posible ikusten etorkizunean sakoneko aldaketak egin ahal izatea: “Aldaketak beti ikuspegi jakin baten ondorio dira, guk aldaketa bilatzen dugu egungo hezkuntza sistemarekiko ikuspegi kritikoa dugulako, baina benetan aldatzeko boterea dutenek ez dute ikuspegi kritikoa lantzeko ez gogo, ez interesik”.

Proiektu alternatiboak ez dira egun batetik bestera sortzen eta benetan denboran mantentzen direnek lan asko dute atzean. “Inplikazioa izugarria da, bai familia zein bidelagunen aldetik, gogoia eta motibazioa edukitzea oinarrizkoa da eskolak denboran iraun dezan”, dio Lasok. Hezkuntza alternatibo baten aldeko apustua egiteak asko suposatzen du berarentzat: “Bizitzeko era bat da, filosofia bat, ikasteko beste modu bat”.

Urratsak beraz, eman daitezke eta heziketa oinarri ezberdin baten alde borrokan jarraituko dute Tximeleta, Kortiñe eta Zingira bezalako proiektu alternatibo guztiek, bestelako hezkuntza bat posible dela onartu arte.

1. Zatidura

Ane Ablanedo: “Eskola konbentzionalaren eredia gizakiaren beharren kontra dago”

Ane Ablanedo irakaslea da ogibidez, NUP eta Baionako Unibertsitatean ematen ditu eskolak. Horrez gain, haur prebentzioan aditua da. Bizitako prozesu pertsonal baten ostean, neurosiaren inguruko ikasketak egin zituen. Helduen klinika aztertzen hasi zenean nahitaez jo behar izan zuen haurtzaroa ikertzea, pertsona ez gaixoak nola hazi aztertu nahi zuelako. Hor zuzenean egin zuen topo eskolarekin. Izan ere, Ablanedoren aburuz, indarrean dagoen eskola ez da haurrarentzat osasungarria. Horren harira, egun irakasle lanetan ibiltzeaz gain, pedagogia berritzaileetan formatzailea da. Haurtzaro libreago baten aldeko eginkizunean guraso, hezitzaile eta eskola alternatiboen aholkulari gisa jarduten du.

Hezkuntza alternatiboaren oinarri nagusietako bat hezitzaile eta umeen arteko autoritate harreman horrekin apurtzea da. Honek beraz, umeak “nahi duena” egin dezakeela esan nahi du?

Autoritatea baino, direktibotasuna esango nuke. Hezkuntza alternatiboan hezitzaile eta umearen arteko direktibotasunarekin amaitzea bilatzen da. Helduak haurraren bizitza gidatzeko duen joera hori oso normalizatuta dago, beharrezkotzat hartzen da irakasleak haurrari zer eta nola egin behar duen esatea. Horrekin apurtu behar dugula uste dut.

Dena den, horrek ez du inolaz ere esan nahi haurrak nahi duena egin dezakeenik, askatasunaren kontzeptuarekin batera mugaren kontzeptua hartu behar dugulako kontuan. Askatasuna, beste edozer bezala, ezin baita mugagabetasunean ulertu, errealitateak beti mugatzen gaituelako. Azken hori ulertzeko ezinbestekoak bilakatzen dira arauak, elkar bizitzarako nahitaezkoak direnak. Ezberdintasuna da eskola alternatiboetan haurrek ezartzen dituztela arauak eta ariketa hori egiterakoan horien beharraz ohartzen direla.

Hezitzaileak irakatsi beharrean erakutsi behar duela diozu ‘Argia’ aldizkarian argitaratutako artikulu batean. Zein izango litzateke ezberdintasuna?

Hitzen aldetik begiratuta diferentzia oso txikia da, baina sakonean bi hitz horien artean dagoen aldea bizitzaren aurrean hartzen dugun jarrera bat da. Erakustea, zuk dakizun hori, gustatzen zaizun hori edo ondo egiten duzun hori besteari, kasu honetan ikasleari, azaltzean datza. Inolako helbururik gabe, soilik modu naturalean ateratzen zaizulako eta besteari interesekoa suerta dakiokelako. Irakasteak berriz, badu asmo edo helburu jakin bat: haurrak zuk egiten duzun hori ikastera behartzea. Eta nor da irakaslea haurrari zer ikasi behar duen esan eta behartzeko?

Aipatu beharra dago ere, erakustek eta irakasteak ez dutela inondik ere efektu bera. Erakustea inolako xederik gabe egiten den ekintza bat da eta irakasteak ordea, helburu

jakina du. Haurrak hori antzematen du, soberan dakielako helduak noiz irakurtzen dion liburu bat autentikoki eta noiz berak ere berdina egin dezan. Eskola konbentzionalak irakatsi egiten du, ez erakutsi.

Egun indarrean dagoen hezkuntza sistemak haurrengan ezaugarri jakin batzuk bilatzen dituela esango zenuke?

Bai, esango nuke egungo sistemak haurrak neurri batean diseinatu egiten dituela. Hezkuntza sistemaren bitartez belaunaldi heldu batek hurrengo belaunaldiarentzat prozesu bat antolatzen du. Horren bidez eskolan dauden haurrak komunitatearen heldu gaituak bilakatzen dira, komunitate jakin batean bizitzeko interesatzen diren pertsonak diseinatzen dira.

Hori posible izateko profil psikologiko bat zehazten da, determinatu egiten da nolako pertsonak behar diren eta zeintzuk diren hobetsiko diren ezaugarri edo trebetasunak. Eta noski, gaitasun batzuk hobesten diren bitartean beste batzuk eragotzi edo moldatu egingo dira. Gainera, nork balio duen eta nork ez zehazteko kalifikazioak erabiltzen dira, eta horrela klaseak sortzen dira eskolaren barruan: tontoak eta argiak. Eskola oso selektiboa da eta guztiz naturalizatua dago bereizketa horiek egitea. Eskola konbentzionalaren curriculum ezkutuaren barnean sartuko litzatekeen puntu bat da azken hori.

Eskola konbentzionalaren “curriculum ezkutua” aipatu duzu, zer da horrekin esan nahi duzuna?

Curriculum ezkutuaren kontzeptua niri oso interesgarria iruditzen zait, beti hitz egiten baitugu eskolaren curriculum esplizituaz eta oso gutxitan inplizituaz. Esplizituan ikasleek landu beharreko eduki eta kompetentziak markatzen dira. Hala ere, askotan galdetzen diot nire buruari zein puntura arte betetzen den curriculum hori, Bigarren Hezkuntzan adibidez ikasleen gehiengoak ez dituelako edukiak behar bezala barneratzen. Gogoratzen al da norbait institutuan ikasitakoaz?

Eskolak badu ordea, zeharo ondo betetzen duen curriculum, ezkutua dena. Horretan eduki ezberdinak lantzen dira, eta horiek eskolara joate hutsagatik eta eskolaren egitura berean hainbeste denbora pasatzeagatik barneratzen ditu haurrak. Hauek liriateke curriculum ezkutuaren sartzen diren edukien adibideak: “irakasleari dagokio esatea zer dagoen ondo eta zer gaizki” edo “haurrak onartu behar du irakaslearen baimena behar duela edozer egiteko”.

Helburu sakona duten baina aitortuak ez diren edukiak lantzen dira curriculum ezkutuaren bidez, guztiz naturalizatuta daudenak. Munduan egoteko modu jakin bat erakusten zaio umeari, sistemari komeni zaiona. Finean, gizarte eredu bat birsortzea da eskolaren funtsa, curriculum ezkutu horren helburua, alegia.

Haien seme-alabak eskola alternatibo batera eramaten dituzten gurasoek zer da zure ustez bilatzen dutena?

Nik uste dut haien haurrentzat ekosistema ezberdin bat bilatzen dutela, errespetuzko harreman eta haziera bat eskainiko duen leku bat. Hautu hori egiten duten guraso askoren ustez eskola konbentzionala pertsona batek ongi garatu eta bizitzeko behar dituen gauzeekin kontraesanetan dago. Izan ere, eskola konbentzionalaren ereduak gizakiaren beharren kontra dago. Sistemaren eskakizunak oinarri hartuta arestian aipatutako profil psikologiko hori sortzen dute, haurrari txikitatik mendeko eta obediente izan behar dela erakutsiz. Haurtzaroa gainera, oso garai berezia da profil psikologiko horretara heltzeko moldaketak egiterako orduan, haurrak oso plastikoak eta maneiagarriak direlako.

Edonola ere, badira beste arrazoi asko; haur bakoitzaren erritmoak errespetatzea, haurra bera erdigunea izatea, bakoitzaren interesak identifikatu eta lantzea, kalifikazioak baztertu nahi izatea, eta abar.

Gizartean hezkuntza sistema alternatiboekiko geroz eta interes gehiago dagoela dirudi. Zure ustez posible da sistemaren barnean aldaketa bat ematea?

Gizartean kezka handia dago hezkuntzaren inguruan, baina orain badirudi pedagogia berritzaileak modan daudela. Horrek okerrerantz eragiten du, sistemaren barnean dauden eskola askotan aldaketak egiten dituztela dirudielako baina sakonean ez direlako benetako aldaketak.

Nire ustez itxura berritzailea hartzearen fenomeno honek arrisku handia du. Eskola askotan espazioak aldatzen dituzte edota Montessori materialak erabiltzen hasten dira, eta nik ez diot horri garrantzia kentzen, inondik ere, baina gehienetan hori bakarrik aldatzen bada itxurakeria hutsa da egiten ari dena.

Ikastaroak eskaintzen ditudanean askotan galdetzen didate ea posible den sistemaren barnean benetako aldaketak ematea. Aldaketak egin ahal direla erantzuten diet, baina beti muga batzuen barruan. Sistemak behin ere ez du utziko bere printzipioak diren horiek hausten. Instituzio batek egonkortasuna behar du, orduan aldaketak egin ahal izango dira, baina beti apurtu ezingo dugun hesi handi baten barnean. Horregatik, nik planteatzen dudana aldaketa benetan errotik egin beharrekoa da, indarrean dagoen hezkuntza sistemaren barnean ez litzatekeena posible izango.

2. Zetidura

Eskola alternatiboetan ohikoenak diren pedagogiak

Pedagogia berritzaile ugari ezagutzen diren arren, eskola alternatiboetan hurrengo laurak dira gehien erabiltzen direnak: Waldorf, Montessori, Summerhill eta Rebeca Wild.

Waldorf pedagogia

Rudolf Steiner zientzialari, filosofo eta irakasle austriarrak sortu zuen egun Waldorf izenarekin ezagutzen den pedagogia librea. Eskola alternatiboetan gehien erabiltzen den pedagogietako bat da, Montessorirekin batera.

Steinerrek garatutako ikasketa estrategia haurraren garapen globalean oinarritzen da; gorputzaren, espirituaren eta adimenaren garapenean, hain zuzen. Hori posible izateko, hiru zazpi urteko bereizten ditu (0-7, 7-14 eta 14-21), umeak denbora tarte bakoitzean gauza ezberdinak landu eta barneratu behar dituelako.

Lehen tartean haurraren mugimendua eta psikomotrizitatea ahalik eta hobekien lantzea da helburua. Horretarako, Steinerrek proposatutako metodologia jolasean oinarritzen da. Bigarren tartean ordea, garapen kognitiboak indarra hartzen du eta hizkuntzak lantzeari zein sormena indartzeari garrantzi handia ematen zaie. Amaitzeko, hirugarren eta azken zazpi urtekoan, haurrak ikuspegi kritikoa garatzea bilatzen da, garrantzi handia ematen zaio erantzukizun sozialaren inguruko kontzientzia hartzeari. Tarte horietan guztietan Waldorf pedagogiak haurrenganako konfiantza eta errespetua ezinbestekotzat jotzen ditu.

Montessori pedagogia

Maria Montessori psikiatra, sendagile eta pedagogo italiarra izan zen Montessori pedagogiaren sortzailea. Sendagile moduan lanean aritu izanak adimen urritasuna zuten haurrak behatzeko aukera eman zion eta euren egoera hobetzeko asmoz, bere metodologia jarri zuen martxan. Egun, pedagogia aktibo guztien artean hedapen handiena lortu duena izan da.

Montessorik haurraren garapena lau fasetan bereizten du: haurtzaro txikia (0-6 urte bitartekoa), haurtzaro handia (6-12 urte bitartekoa), nerabezaroa (12-18 urte bitartekoa) eta heldutasun gaztea (18-24 urte bitartekoa). Horietan guztietan garapenak ez du erritmo linealik, lehen haurtzaroa eta nerabezaroa kontsideratzen baitira sorkuntza aldiak, beste biak egonkortze alditzat hartzen diren bitartean, aurretik ikasitakoa barneratzeko.

Bere metodologia haurraren berezko joerak aztertzean oinarritzen da, joera horiek lantzeko bere jakin-mina pizten duten materialak eskura jarritz. Garrantzi handia ematen zaio material horiekin giroak prestatzeari.

Aipatutakoaz gain, zentzumen guztien garapena lantzea, fikzioa eta errealitatea ezberdintzea, haur bakoitza indibidualki behatzea eta talde lana bideratzea dira pedagogia honetako beste gakoetako batzuk.

Summerhill eskola

Alexander Sutherland Neill da Summerhill eskolaren aita. Eskola hau aitzindaria da pedagogia antiautoritario eta libertarioen artean. Ongizatea eta zoriontasuna bermatzea dira Neillek proposatutako helbururik nagusienak. Bere ustez, haurra jaiotzen denetik ona, zintzoa eta zentzuduna da, beraz, eskolak bizitza zoriontsu bat eduki dezan heziketa sano bat eskaini behar dio.

Neillek sentimendu libreen garapena sustatzen du, eta horretarako askatasuna eta libertinajearen arteko ezberdintasuna markatzen du, ez baita inolaz ere gauza bera: haurrak nahi duena egin dezake, baina beti ondokoa mindu gabe. Hori dela eta, haurrak aukeratu egingo du eskolara joan edo jolasean gelditzea. Hautaketak garrantzi handia du Summerhillen, askatasun horrek autorregulazioa lantzea ahalbidetzen duelako.

Astean behin batzarrak egiten dira pedagogia hau jarraitzen duten eskoletan, talde bizitzari garrantzi handia ematen diotelako. Autoritatearekin guztiz apurtzen dute eta irakaslea haurraren parean kokatzen da, funtzionamendu asanblearioak harreman horizontalak bermatzen dituela defendatzen dute.

Finean, komunitatearen bateratasuna, berdintasuna, askatasuna, maitasuna eta errespetua dira Summerhill eskolen zutabe nagusiak.

Rebeca eta Mauricio Wild-en pedagogia

Rebeca Wild-ek, bere senar Mauriciorekin batera, munduan zehar heziketa ulertzeko planteamendu berri bat zabaldu zuen. Guraso izateak eraman zituen hezkuntzaren inguruan hausnartzera, eskola tradizionalak beraien haurrei autokonfiantza, poza eta jatorrizko energia galtzea eragiten ziela uste baitzuten. Horri erantzunez, 1977. urtean Pestalozzi izeneko eskola alternatiboa sortu zuten.

Wild senar-emazteen eskolan ez da adinen arteko bereizketarik egiten eta haurraren etapa bakoitzean ez dago eduki jakin batzuk lantzeko beharra. Ikasle bakoitzaren erritmoak errespetatzen dira, bere interesak entzuten dira eta berak erabakitzen du zer ikasi behar duen eta noiz den horretarako unerik egokiena.

Izan ere, benetako ikaskuntza norberaren interesetik jaiotzen dela uste dute, gainerakoa memoriaz ikasten den bitartean, edukiak barneratu gabe. Haurrari autonomia hori emanez, ikasten duena benetan nahi duelako ikasiko du, kanpoko injerentzia edo agindurik gabe.

3. Zetidura

Ohiko sistemaren barnean, parentesia

Eskola Txikiak, hezkuntza sistema arautuaren barnean alternatiba dira. Izan ere, horien oinarrian eskola alternatiboen printzipioak daude. Landa eremuko eskolak dira, betidanik existitu izan direnak. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, Eskola Txikien saretze mugimendua laurogeiko hamarkadaren amaieran eman zela adierazi du Mikel Goñi Eskola Txikien koordinatzaileak: “Urte horietan hasi ginen eskola guztiak elkarlanean, hartu-emanen oinarritutako dinamikak aurrera eramaten”.

Elkarlanean jarduteko gogo hori administrazioaren arduragabekeriari erantzunez jaio zela dio Goñik. Izan ere, Eskola Txikiak alde batera uzten zituzten eta eskola eredu bakar batean, eskola handi edo arruntetan, ardaizten ziren.

Elkartzen lehenak Gipuzkoako eskolak izan ziren, baina Araba eta Bizkaiko eskolak azkar bildu ziren ere, EAEko Eskola Txiki guztiak bat egin zuten arte. Egun, hiru ezaugarri nagusik ezberdintzen dituzte Eskola Txikiak eskola arruntetatik: adin aniztasuna, txikitasuna eta landa eremuan kokatuta egotea.

Lehen ezaugarria, adin aniztasuna, talde proiektuaren “oinarri nagusia” dela azaldu du Goñik, Eskola Txikiak elkartzen dituen ezaugarria hain zuzen. Izan ere, onura asko antzematen dizkiote adin ezberdinak elkarren artean aritzeari: “Interakzioa aberastu egiten du, ikasleen arteko harremanak errealagoak egiten ditu, kooperazioa indartu eta lehiakortasuna txikitzen du eta elkarrengandik ikasteko aukerak areagotzen ditu”.

Bigarren ezaugarriari erreparatuz, Eskola Txikietan txikitasun horrek eskaintzen dien guztiaz baliatzen dira: “Hobeto ezagutzen dugu elkar, irakasleek ikasle bakoitzari arreta berezia eskaintzeko aukera dute eta sortzen den harremana gertuagokoa da”. Hirugarren eta azken ezaugarria landa eremuan kokatuta egotea da, horrek haurrei euren ingurua ezagutzeko aukera ematen baitie eta era berean, herria bizirik mantentzeko bidea dela uste du Goñik.

Berrogeita hamahiru eskolek osatzen dute uneotan sarea, hogeitasei Gipuzkoan, hogeit Araban eta sei Bizkaian. Guztiak egiten dute metodologia berritzaileen aldeko apustua. Izan ere, aipatutako hiru ezaugarriek bide ematen diete ikasteko beste modu bat martxan jartzeko. Eskola Txikiak eta sistematik kanpoko eskola alternatiboak alderdi askotan dira antzekoak: “Eskola alternatiboetan bultzatzen diren printzipio asko gureak egiten ditugu; umeen erritmoak errespetatzea, jolas librea sustatzea, ikasle guztiak irakasle guztionak izatea, ikasgai zurrunik ez markatzea edota azterketarik ez edukitzea”.

Hala ere, bien artean ezberdintasun argi bat dago, Eskola Txikiak hezkuntza sistemaren barnean daudelako eta horrek egin behar batzuk betetzea eskatzen duelako: “Eskola alternatiboak ez daude curriculum bat betetzera behartuta, gu ez gaude horretatik salbu.

Nolanahi ere, egia da denboraren kudeaketa edota ebaluazioarena beste ikuspegi batekin lantzen ditugula”. Curriculum-ean markatzen diren eduki guztiak landu dituztela azaldu beharra dutela adierazi du Goñik, beste metodologia batzuk aurrera eramaten dituzten arren programaren garapena ondo bete dutela baieztatzeko.

Eskola alternatibotik ohiko hezkuntzara jauzia egiten den unean bezala, Eskola Txikietako gurasoak kezkatu egiten dira haien haurrak Eskola Txikitik tamaina handiko eskola arrunt batera pasatzen direnean. Haur horiek ez dira inoiz sistematik kanpo egon, baina egia da eskola berri horretan aurkituko dituzten dinamikak guztiz ezberdinak izango direla. Hala ere, Goñik dio aldaketa kasu batzuetan gogorra izaten den arren, hurrek gaitasuna dutela dinamika berri horietara egokitzeke. Izan ere, alderdi batzuk, taldean lan egitea edota informazioa kudeatzen jakitea, oso landuta daramatzatela azaldu du.

1988. urtetik Eskola Txikien sareak festa bat antolatzen du “Eskola Txikiak bizirik” lelopean. Urtero, ekaineko bigarren igandean eskola guztiak elkartzen dira herriak eta eskolak elkarren beharra dutela aldarrikatzeko. Haien eskolen alde, haur, guraso eta irakasleentzako festa egun bat izaten da, txikitasunean ere handi izan daitekeelako.

4. Zatidura

Homeschooling-a: sistematik at ikasteko bestelako alternatiba

Eskola konbentzionalak haurren beharrak asetzen ez dituelako edo homeschooling-ak dituen onura pedagogikoengatik, badira gaur egun haurrak etxean hezitzea erabakitzen duten familiak, ez irakasle, ez eskolarik gabe.

Homeschooling-a ez da fenomeno berria, betidanik existitu izan da. Hala ere, gaur egungo homeschool modernoak 70 eta 80ko hamarkadetan du jatorria, Ameriketako Estatu Batuetan hain zuzen. Eskola konbentzionalaren ereduarekin bat ez zetozen familiek sortu zuten eta harrez geroztik, asko dira mundu mailan etxean heitzeko hautua egiten duten familiak.

Madalen Goiria EHUko Zuzenbide Zibileko irakaslea da eta homeschooling-ean aditua. Hamar liburu argitaratu ditu etxeko heziketaren inguruan eta bere doktore tesiak ere gai bera jorratzen du: *“La opción de educar en casa”*. Bertan, gaia zuzenbidearen ikuspegitik lantzen du eta haurrak ez eskolatzeak dakartzan ondorioak azaldu egiten ditu. Izan ere, herrialde askotan ez dago legez baimendua.

Espainiako Estatuan ez dago legez debekatua, ezta aitortua ere. Legediak ez du etxean hezteari buruzko aipamenik egiten eta Konstituzioan sei eta hamasei urte arteko epealdian eskolatzea derrigorrezkoa dela zehazten da. Hego Euskal Herrian beraz, homeschooling-a egiten duten familiek ez dute lege babesik aurkitzen. Cristina Arriagak, aski ondo daki zer den babes hori ez edukitzea eta zeintzuk diren gerora datozen arazoak.

Arriagak hamar urterekin erabaki zuen bere haurra eskolatik ateratzea: “Sistema konbentzionalak presio gehiegi eragiten zuen berarengan, frustratuta zegoen”. Bere haurrak arazoak zituen ikaskide zein irakasleekin, ez zegoen gustura eta ez zuen bere lekua aurkitzen. Hamar urterekin hasi zen gertatzen zitzaiena hitzez adierazten baina Arriagak aurretik zekien bere haurra ez zegoela ondo: “Lo egiteko arazoak zituen eta triste zegoen, pediatriak eta psikologoak esan zidaten eskolatik atera behar nuela, behintzat denbora batez”. Haurra eskolatik atera baino lehen irakasleekin hitz egiten saiatu zen, berak ez zuelako ondo ulertzen gertatzen ari zena. Dena den, alferrik izan zen: “Irakasleen aldetik ez nuen laguntzarik jaso, behin nire haurra arraroa zela esan zidaten”. Eskolan bere haurraren beharrei erantzuteko gai ez zirela izan uste du Arriagak, haurrak arreta berezia behar zuen une horretan ez zuelako jaso.

Guraso batzuek, gutxik normalean, hasieratik haien haurrak etxean heziko dituztela argi dute, baina asko dira Arriagaren moduan eskolan sartu eta arrazoi ezberdinak direla eta, urte batzuk pasa ostean, etxean hezteko apustua egiten dutenak. Esan bezala, arrazoiak askotarikoak dira, Goiriak gurasoen lau profil ezberdintzen ditu bere tesian arrazoi

ezberdin horien arabera bereizketa bat eginez: guraso babesleak, pedagogoak, errebeldeak eta biktimak.

Lehenak, guraso babesleak, eskola haurraren garapenerako leku ez aproposa dela uste dutenak dira, haurrak eskolan tratatu txarrak jaso dituelako, bullying-a kasu, erabakitzen dute ateratzea. Pedagogoez, eskola konbentzionala oroimenezkoa eta funtsik gabekoa dela uste dute, haurren ahalmen artistiko eta sortzaileak zapaltzen dituenak. Errebeldeek aldiz, eskolan balio kapitalisten transmisioa dagoela uste dute eta horren ondorioz erabakitzen dute ateratzea, guraso antikapitalistak izaten dira. Azkenik, biktimen profila bereizten du Goiriak, eskola oso uniforme delako eta uniformetasun horretatik ateratzen den haurra sistemaren biktima bilakatzen delako egiten dute etxean hezteko apustua.

Goiriak azaldu duenez, homeschooling-aren arautze ez dakartzan ondorioak bereizketa bat eginda ulertu behar dira, ez baita berdina haurra inoiz ez eskolara sartu izana edo eskolan urte batzuk pasa ondoren atera izana. Haurra ez bada inoiz eskolatua izan, arazoak ez dira zertan sortu behar. Dena den, norbaitek salaketa bat jartzen badu, sei eta hamasei urte bitarteko ume bat etxean eskolatu gabe dagoela esanez, Gizarte Zerbitzuek esku hartu beharko dute adingabe horren egoera zein den ikusi eta neurriak hartzeko.

Bigarren kasuan, haurra eskolara joan eta geroago gurasoek ateratzea erabakitzen baldin badute, ikastetxetik Hezkuntza Sailari hutsegiteen berri emango zaio, eta Hezkuntzako Ikuskaritza familiarekin harremanetan jarriko da zer gertatzen ari den jakiteko.

Prozedura ezberdina izan arren, bi kasuetan arrisku berdina dagoela azaldu du Goiriak, homeschooler-aren erantzuna sinesgarria ez bada eta argudio sendoak eskaintzen ez baditu, kasua Fiskaltzara pasako da eta horren ondoren, artxibatzen ez bada, epailearengana hel daiteke. Arriagak bere haurraren kasua artxibatzea lortu zuen, baina epaiketa baten ostean. Pediatra eta psikologoaren txostenak oso lagungarriak izan ziren kasuarekin amaitzeko.

Etxean hezteagatik sor daitezkeen arazoak direla eta, familia asko ez dira ausartzen erabakia hartzera. Goiriaren ustez, arautze falta horren beldurratik asko dira atzera egiten dutenak. Uneotan, ezinezkoa da Hego Euskal Herrian homeschooling-a egiten duten familien kopurua jakitea, ez baita posible estatistika ofizialik aurkitzea. Guraso gehienek isilpean egitea nahiago dute arazoak ekidite aldera. Dena den, tesia burutu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako kopuruak batuta, bostehun bat familia inguru egongo direla uste du Goiriak.

Horrez gain, bada atzera egiteko beste arrazoi bat, homeschooling-a ez baita sozialki begi onez ikusten eta familiek kritika ugari jasotzen dituzte. “Arduragabeak direla eta haurrak gehiegi babesten dituztela izaten dira gurasoek jasotzen dituzten kritika ugariak, jendeak ez du hautu hau ulertzen”, dio Goiriak. Nolanahi ere, homeschooling-a egiten duten gurasoek euren artean elkartzeko joera dute, horrek nolabaiteko batasuna sortzen baitu beste hezkuntza baten alde egiten duten familien artean.

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea



KAZETARITZA
IKASTURTEA 2019-2020

MEMORIA

**ESKOLA ALTERNATIBOAK,
HEZIKETA EREDU EZBERDIN BATEN ALDARRIA**

EGILEA: Nagore Eslaba Guarrotxena

ZUZENDARIA: Iñaki Lazkano Arrillaga

Leioa, 2020eko maiatzaren 25a

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”.

Laburpena

Eskola alternatiboak indarrean dagoen hezkuntza sistematik at kokatzen diren ikastetxeak dira. Eredu tradizionalari antzematen dizkioten gabeziak direla-eta jaiotzen dira gisa honetako eskolak, eta gehienetan gurasoak izaten dira ekimen hauen bultzatzaileak.

Euskal Herrian eskola alternatibo ugari daude, zifra zehatza jakitea ordea, ezinezkoa da, ez baitago inon jasota proiektu alternatibo guztien kopurua. “Ludus” izeneko direktorioaren arabera, Espainiako Estatuan zortziehun proiektu alternatibo ezagutzen dira, dena den, hor ez daude inolaz ere denak bilduta. Eskola askok beraien proiektuen berri ez ematea nahiago dute, izan ere, eskola hauek alegalak dira, haien existentzia eta funtzionamendua ez dago legez arautua baina ezta ere debekatua. Hortaz, legalki sor daitezkeen arazoak ekidite aldera, eskola alternatibo askok “ezkutuan” dihardute lanean.

Egun, ezjakintasun handia dago mota honetako eskolen inguruan eta aurreiritzi asko sortzen dira bestelako hezkuntza baten alde egiten duten guraso zein hezitzaileekiko, “basati batzuk” direla edota haurrei “nahi dutena egiten” uzten dietela esan ohi da maiz. Hala ere, eskola hauek, beraien filosofiari jarraiki, oinarri sendo bat dute.

Eskola batetik bestera ezberdintasunak egon arren, proiektu alternatibo guztiek printzipio berberak aintzat hartzen dituzte. Eskola konbentzionalak haurraren barne grina zapaltzen duela uste dute eta horren aurka, haurra erdigunean kokatzen duten proiektuak sortzen dituzte. Ume bakoitzaren interesak entzun eta bere erritmoa errespetatzea da gakoetako bat, bera baita ikasketa prozesuaren subjektu nagusia. Haurrari autonomia osoa emanez erabakiak bere kabuz hartzen eta arau sortzaile izaten uzten diote, helduaren rola haurra behatu eta laguntzera mugatzen delarik.

Erreportaje honen helburua beraz, eskola alternatiboen errealitateari hurbilpen bat egitea da, proiektu hauen oinarri eta funtzionamenduaren azalpena eman eta sistema tradizionalarekin dituzten ezberdintasunak argitzea.

Sarrera

Gradu Amaierako Lana egiteko gaia aukeratzeko unean gai ezberdinak bururatu zitzaizkidan, ez nuen lehenengo momentutik argi izan eskola alternatiboen gaia landuko nuenik. Hasiera batean, haurdunaldi subrogatua edota anorexia lantzea pentsatu nuen, gertutik bizi izan ditudan bi errealitate direlako eta horietan sakontzea ideia ona izan zitekeela pentsatu nuelako. Gerora ordea, iritziz aldatu nuen. Bizilagun batekin izandako elkarrizketa batek eraman ninduen aukeratu dudana gaia lantzera. Beste guraso batzuekin batera eskola alternatibo bat sortzeko prozesuan murgilduta zegoela kontatu zidan, eta nik ezjakintasun osoz eskola horiek zer ziren galdetu nion. Berak horrelako eskolak zergatik sortzen diren azaldu zidan eta hezkuntza sistema tradizionalaren inguruan zuen ikuskerak asko pentsarazi zidan.

Gaiak jakin-min handia piztu zidan. Nik pertsonalki, ez dut erreportaje hau burutu arte indarrean dagoen hezkuntza sistemaren inguruko hausnarketarik egin. Bere irakurketak asko harritu ninduen eta era berean, interesgarria egin zitzaidan. Zergatik sortu beste mota bateko eskolak? Beharrezkoa al da? Zer dute ezberdin eskola alternatiboek? Galdera asko planteatu nizkion nire buruari une horretan, eta ezjakintasun hori argitu nahian abiatu nintzen gai hau lantzerantz.

Erreportajearen bidez eskola hauek zeri erantzunez eta nola jaiotzen diren, zer-nolako funtzionamendua duten, gurasoek horienganako apustua zergatik egiten duten eta eskola tradizionalarekin dituzten ezberdintasun eta trabak zeintzuk diren argitzen saiatu naiz.

Helburuak

Aurretik aipatu bezala, lan honen helburu nagusia eskola alternatiboaren oinarri eta funtzionamenduaren berri ematea izan da. Horretarako, erreportajearen zehar nagusitu diren hiru ahotsak ezinbestekoak izan dira: Amaia Areta (Tximeleta eskolako gurasoa), Nerea Laso (Zingira eskolako bidelaguna) eta Jago Cadiernorenak (Kortiñe eskolako bidelaguna). Laso eta Cadierno bidelagun terminoarekin izendatu ditut, eskola alternatiboetan hitz hori erabiltzen dutelako hezitzaileei erreferentzia egiteko. Bidelagun edota hezitzaile terminoak hobesten dituzte irakasle hitzaren aurrean.

Era berean, gurasoen ikuspuntua sartzea beharrezkoa ikusi nuen, horrelako proiektu baten alde egiteko arrazoiak zeintzuk diren azaltzeko. Sistema alternatibo eta tradizionalaren artean dauden aldeak eta trabak aztertzerako orduan ikasleen testigantzak jasotzea baliagarria izan zitekeela pentsatu nuen, jauzi hori egitea ez baita erraza izaten beraientzat.

Bestalde, zatiduretan gaia osa dezaketen edukiak lantzen saiatu naiz. Alde batetik, pedagogiei bideratutako zatidura sartzea erabaki nuen, eskola bakoitzak kontuan hartzen dituen pedagogien nondik norakoak azaltzea beharrezkoa ikusi nuelako. Bestetik, Ane Ablanadori egindako elkarrizketa zatidura gisa sartzea erabaki nuen, haur prebentzioan aditua eta pedagogia berritzaileetan formatzailea izanik, eskola alternatiboaren filosofia ulertzeko adierazpen oso baliagarriak eskaini zizkidalako. Sistemaren barnean beste modu batean ikasteko eskolak daudela islatu nahi izanagatik sartu nuen, berriz, Eskola Txikien zatidura. Eta amaitzeko, homeschooling-ari eskainitako zatidura hezkuntza alternatiboaren munduan bestelako aukerak ere daudela azaltzeko txertatu nuen. Azken hori burutzerakoan, gaian aditu den Madalen Goiria eta etxeko heziketa lehen pertsona bizi izan duen Cristina Arriagaren ahotsak batzea oso aberasgarria iruditu zitzaidan.

Hortaz, ardatz gisa hiru eskolen arduradunen testigantzak hartu ditudan arren, guraso, ikasle zein adituen hitzak lana osatu, eta ahalik eta modu egokienean informazioa eskaintzeko bidea izan dira.

Metodologia

Erreportajea burutzeko jarraitu dudan prozesua hurrengo izan da:

1. Informazio orokorreko bilaketa sarean

Eskola alternatiboen gaia lantzea erronka bat izan dela esango nuke. Izan ere, erreportajea egin aurretik ez nuen gaiaren inguruko ezagutzarik. Hortaz, lehendabiziko pausoa sarean bilaketak egitea izan zen, gaira gerturatzen hasteko.

Lehen bilaketa horretan oso lagungarriak egin zitzaizkidan bi dokumental aurkitu nituen. Bata, Euskal Telebistako lehen kateko “Ur Handitan” programan gaiari eskainitako saio bat izan zen eta bestea, “Enseñame pero bonito” izenburuko dokumentala, Sara Moreno psikologoak egindakoa.

Horren ondoren informazio dezente aurkitu nuen, eskola hauen berri ematen zuten artikulua oso interesgarriak, bi bereziki. Esan beharra daukat, lan handia eskaini diodala eskola alternatiboetan lantzen diren pedagogiak aztertu eta ulertzeari, bakoitzak bere berezitasunak dituelako eta kasu horretan, iturri ezberdinak erabili ditudalako metodologia bakoitzaren informazioa osatu ahal izateko.

Dena den, lan hau burutu ahal izateko bi libururi esker jasotako informazioa izan da baliagarriena, Almudena Garciaren “Otra educación es posible” eta Cesar Bonaren “Las escuelas que cambian el mundo”. Garciaren liburuak eskola alternatiboen filosofia ulertu eta hezkuntza tradizionalaren inguruko gogoeta egitera eramanez ninduen, lana egiteko bi gako oso garrantzitsu.

2. Bilaketa zehatza

Bilaketan sakondu ahala, konturatu nintzen eskola alternatibo ezberdinekin kontaktuan jartzea zela nire lehentasun nagusia, beraien testigantzak izango zirelako erreportajearen oinarria. Aurretik adierazi legez, bizilagun batekin izandako elkarrizketa batengatik erabaki nuen eskola alternatiboen inguruko erreportajea egitea. Berak, “Ludus” izeneko direktorioaren inguruan hitz egin zidan, bertan Espainiako Estatuan dauden proiektu alternatibo askoren berri ematen delako, elkarrizketatuko nituen eskolak hor aurki nitzakeela esan zidan.

“Ludus”-en arakatuta beraz, Tximeleta, Kortiñe eta Bizilore eskolak aurkitu nituen. Bizilore diot, eskola hori zelako hasiera batean landuko nuena. Gerora ordea, beraien aldetik erantzunik jaso ez nuenez Zingira eskola aurkitu nuen, baina ez “Ludus” direktorioaren bidez, Zingira ez baita hor erregistratua agertzen. Eskola alternatiboen sarea osatzen duen Haziz Hazi elkartearen zerrendan aurkitu nuen, hain zuzen.

Eskolekin hitz egin ostean, gurasoekin hitz egitera jo nuen. Nire bizilagunak Inma Ducayren kontaktua pasa zidan, bere haurra eskola tradizionaletik atera eta sistema alternatibora eraman zuelako. Ducayri esker, Rocio Ramosen kontaktua lortu nuen eta lagun baten bidez, Koldo Zabalzarena. Beraiekin hitz egin ondoren, ikasleen testigantzak tartekatzea interesgarria izan zitekeela pentsatu nuen, esperientzia gurasoen begietatik islatzea garrantzitsua den moduan, eskola alternatibo batetik pasa diren ikasleen ahotsak batzeak ere pisua duelako. Amaia Aretak Uxue Lasaren kontaktua eman zidan, Tximeletako ikasle ohia delako, eta ikaskide bati esker Oihane Lazkanoiturbururekin harremanetan jartzea lortu nuen.

Lazkanoiturbururekin hitz egin ostean, bera Eskola Txiki bateko ikasle ohia izanik, eskola horiei atal bat eskaintzea pentsatu nuen, hezkuntza sistema tradizionalaren parte izan arren, eskola alternatiboan funtzionamendu bera dutelako oinarrian. Ez nuen arazorik izan Mikel Goñi Eskola Txikietako koordinatzailearekin harremanetan jartzeko, bere e-posta Eskola Txikien webgunean agertzen baita.

“Ur Handitan” programak hezkuntza alternatiboari eskainitako saioan, Madalen Goiria eta Cristina Arriaga ikusi nituen. Homeschooling-aren inguruan hitz egin zuten bertan eta alternatiba guztien artean, eskolez gain bestelako aukerak daudela islatzeko erabaki nuen etxeko heziketari zatidura bat eskaintzea. Oso erraza izan zen beraiekin kontaktuan jartzea, biak Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak izanik e-postak eskuragarri daudelako Interneten.

Amaitzeko, Ane Ablanedorekin hitz egitea lortu nuen. Gai hau landuko nuela erabakitzerakoan, magisteritza ikasten duen lagun bati kontatu nion eta berak unibertsitatean hezkuntza sistemarekin oso kritikoa zen irakasle bat zuela esan zidan, hura zen Ane Ablanedo. Bere izena Interneten bilatu eta azkar topatu nituen bere webgunea eta kontaktua.

Elkarrizketa guztiak egin ondoren, gaia lantzeko iturri dezente nituela ikusi nuen eta eskola alternatiboetako protagonista guztien ahotsak bildu ahalko nituela konturatu nintzen, izan hezitzaile, guraso edo ikasle.

Esan bezala, iturri pertsonalez gain, oso lagungarriak izan dira lana taxuz egin ahal izateko aurretik aipatutako bi liburuak eta pedagogien inguruko hainbat artikulua, bereziki “Hik Hasi” aldizkaritik eskuratutakoak.

3. Erabilitako iturriak eta kontaktuak

Erabilitako iturriak zehaztu baino lehen, egun hauetan bizitzen ari garen egoera arrotzari erreparatu nahi nioke, koronabirusa dela-eta bizitzen ari garen egoerari, alegia. Etxetik atera ezinik egon gara bi hilabetez, jendearekin kontaktuan egoteko debekuarekin, gaitzarekin lehenbailehen amaitzeko bidea izan baita hori, bakoitza bere etxean geratzea.

Egoera honek beraz, zuzenki eragin du nire lana burutzeko moduan. Izan ere, erreportaje oro egiteko beharrezkoak dira elkarrizketak eta ohikoena, elkarrizketa horiek aurrez-aurre egitea da, hori baita modurik aberasgarriena. Kasu honetan, ordea, ezinezkoa izan da elkarrizketatuekin aurrez-aurre elkartzea eta bideo-dei bidez egin ditut elkarrizketak, pantaila tartean izan dugularik. Egia esan, pena handia izan da niretzat, bereziki hiru eskolen elkarrizketen kasuan, hara joan eta nire begien bidez eskolak ezagutu ahal izatea zelako nahi nuen gauzetako bat.

Nolanahi ere, beste aukerarik izan ez dudanez gero, elkarrizketa guztiak bideo-dei bidez egin ditut, bi izan ezik, telefonoz egitea nahiago zutelako elkarrizketatuek. Orotara, hamabi izan dira egindako elkarrizketak, horietatik lau gaztelaniaz egin ditut, elkarrizketatuek hala eskatuta. Kasu horietan, ahalik eta modurik egokienean ekarri ditut beraien hitzak euskarara.

Iturri pertsonalak:

- **Amaia Areta:** Tximeleta eskolako gurasoa eta batzorde pedagogikoaren arduradun nagusia da. Bere testigantza oso erabilgarria egin zitzaidan, Tximeleta eskolaren filosofia eta funtzionamendua modu argi eta ulerterrazean azaldu zidalako. Egindako lehen elkarrizketa izan zen, eskola alternatiboen munduan barneratzeko oso lagungarria. Bere kontaktua “Ludus” direktorioaren bidez lortu nuen, bertan Tximeleta eskolaren e-posta agertzen delako. Hasieratik prestutasun handia erakutsi zuen eta haren bidez beste kontaktu batzuk lortu nituen.
- **Nerea Laso:** Zingira eskolako bidelaguna da. Hasiera batean, Bizilore eskolarekin hitz egitea zen nire asmoa. Martxoaren hamahiruan geratu ginen elkarrizketa egiteko eta egun horretan hain justu, eskolak ixtea agindu zuten. Hortaz, elkarrizketa bertan behera geratu zen, baina telefono bidez egin genezakeela adostu genuen. Gerora ez nuen Bizilore eskolako bidelagunen aldetik erantzunik jaso eta alternatiba bat bilatu behar izan nuen. Une horretan beraz, Gipuzkoako beste eskola bat bilatzea erabaki nuen eta Haziz Hazi elkartearen eskolen zerrenda begiratuta izan nuen Zingiraren berri. Elkarrizketa maiatzaren lehen astean egin genuen, aurretik ezinezkoa zelako beraiantzat, horrek lana egiteko aurreikusita neukan ordena aldatu zidan, nire asmoa egun batzuk lehenago amaitzea baitzen. Hala ere, oso ondo etorri zitzaidan berarekin hitz egitea, Zingira landu ditudan hiru eskolen artean ibilbide laburrena duena delako eta interesgarria iruditu zitzaidalako hainbesteko esperientzia ez duen eskola bat ezagutzea.
- **Jago Cadierno:** Kortiñeko bidelaguna da. “Ludus” direktorioan izan nuen Kortiñeren berri. Eskola honen kasua ezagutzea oso aberasgarria izan zen nire lanarentzat, kasu honetan ez zirelako gurasoak izan proiektuaren sortzaileak. Elkarrizketan bere abizena erreportajearen barrena ez agertzea eskatu zidan, hala nahiago zuelako. Eskola alternatibo askok, arrazoi ezberdinak direla eta, ez

dituzte proiektuak ezagutzera ematen eta Kortiñe kasu horietako bat da, eskola honek adibidez ez du webgunerik.

- **Koldo Zabalza:** Haurrak Tximeleta eskolara eraman zituen denbora batez eta gerora, arrazoi ezberdinengatik, ekonomikoak bereziki, haurrak sistema tradizionalako eskola batera eraman behar izan zituen. Lagun batekin izandako elkarrizketa batek eraman ninduen Koldo Zabalzarekin hitz egitera, izan ere, bere ezaguna zen. Guraso batentzat haurrak eskola alternatibo batera eramateak zer suposatzen duen ulertzea lortu nuen Zabalzarekin hitz egiteari esker.
- **Inma Ducay:** Bere haurrak arreta gabezia zuenez, eskola tradizionaletik atera eta eskola alternatibo batera eramatea erabaki zuen. Benetan interesgarria izan zen berarekin hitz egitea, sistema alternatiboak arazoak dituen haur bati zein neurria arte lagun diezaiokeen ikusi ahal izan nuelako. Imanol Vela bizilagunari esker lortu nuen bere kontaktua.
- **Rocio Ramos:** Haurrak etxean eta eskola alternatibo batean hezi ditu. Bizitako prozesu pertsonal baten ondorioz eraman zituen bere haurrak eskola alternatibo batera, eta bere esperientzia entzutea oso baliagarria izan zen niretzat, egoera arrotzen aurrean erabakiak hartzeak duen zailtasunagatik. Inma Ducayren bidez lortu nuen berarekin kontaktuan jartzea.
- **Oihane Lazkanoiturburu:** Zeraingo Eskola Txikitik eskola arruntera jauzia egin zuen. Ikaskide batek pasa zidan bere kontaktua, izan ere, sistema tradizionalan Lazkanoiturbururekin egin zuen topo, eta gogoan zuen lehen hilabeteak gogorrik egin zitzaizkiola. Jauziak ikaslearen baitan eragin dezakeen frustrazioa nolakoa den ezagutu nuen berari esker, baina era berean, eskola alternatibo baten funtzionamendua duen eskola batean ikasi izanak pertsona moduan hazteko eskaini ahal dizun guztia ere ezagutu ahal izan nuen.
- **Uxue Lasa:** Tximeleta eskolatik eskola arruntera egin zuen jauzia. Amaia Aretaren bidez lortu nuen berarekin hitz egitea. Eskola alternatiboetan pentsamendu kritikoa zenbaiteraino gara daitekeen eta haurtzaroko urteek duten garrantziaz jabetu nintzen berarekin hitz egiterakoan.
- **Ane Ablanedo:** NUP eta Baionako unibertsitateetan irakasle, haur prebentzioan aditu eta pedagogia berritzaileetan formatzailea da. Erreportajerako egin ditudan elkarrizketa guztien artean, dudarik gabe, interesgarriena izan da niretzat. Oso kritikoa da indarrean dagoen hezkuntza sistemarekin eta bere irakurketak asko pentsarazi zidan. Lagun baten bidez izan nuen Ablanedoren berri, Baionako Unibertsitatean bere irakaslea delako. E-posta arazorik gabe lortu nuen, webgune propioa duelako eta bertan eskaintzen duelako. Elkarrizketarekin zatidura bat egitea erabaki nuen, benetan merezi zuela uste nuelako.

- **Madalen Goiria:** Euskal Herriko Unibertsitatean zuzenbide irakaslea eta homeschooling-ean aditua da. Doktore tesia haurrak etxean hezitzearen inguruan egin zuen eta hamar liburu argitaratu ditu gai berdina jorratzen. Alderdi legala ulertzeko oso baliagarria izan zen bere elkarrizketa. EiTB-ko “Ur Handitan” programak hezkuntza alternatiboaren inguruan egindako saioan izan nuen bere berri, EHUko irakaslea izanik ez nuen arazorik izan bere e-posta lortzerako orduan.
- **Cristina Arriaga:** Bere haurra etxean hezitzea erabaki zuen, homeschooling-aren aldeko apustua egitea. Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle denez, erraz jarri nintzen berarekin harremanetan. Bere haurrarekin bizitako esperientzia naturaltasun osoz kontatu zidan eta oso atsegina izan zen berarekin hitz egitea. Eskola tradizionalak bere haurrari eskainitako laguntza urriak arreta deitu zidan. Kasu honetan ere, “Ur Handitan” saioan ikusi nuen Arriaga eta e-posta bidez izan genuen lehen kontaktua.
- **Mikel Goñi:** Eskola Txikien koordinatzaile nagusia da. Lazkanoiturbururekin hitz egin ondoren Eskola Txikien inguruko atal bat lanean sartzea interesgarria izan zitekeela pentsatu nuen, eskola alternatiboen funtzionamendu bera jarraitzen baitute eskola hauek, baina sistemaren barnean egonda. Eskola Txikien webgunean arakatuta lortu nuen Goñiren kontaktua.
- **Ruben Gallego:** Haziz Hazi elkarteko ordezkaria da Gipuzkoan. Elkartearen helburu nagusia eskola alternatiboen arteko sare bat sortzea izanik, interesgarria iruditu zitzaidan berarekin kontaktuan jarri eta erreportajearen atal bat eskaintzea. Elkarrizketa egin ondoren Haziz Hazi-ren inguruko informazioa zatidura batean sartzea erabaki nuen. Dena den, guztia idatzita izan ondoren pedagogien inguruko informazioak zatidura behar zuela konturatu nintzen, erreportajearen barnean sartuta oso astuna izan zitekeelako. Beraz, pedagogien atala zatidura bilakatu eta Haziz Hazi-ri eskainitako zatidura erreportajetik kanpo uztea erabaki nuen.
- **Imanol Vela:** Euskal Herriko Unibertsitateko magisteritza irakaslea da. Berarekin izandako elkarrizketa batek eraman ninduen eskola alternatiboen gaia lantzerara. Herriko bizilaguna da eta uneotan, beste guraso batzuekin batera, eskola alternatibo bat sortzeko prozesuan murgilduta dago. Waldorf pedagogiarenean inguruko ikastaroak jaso ditu eta hezkuntza sistema tradizionalarekin bereziki kritikoa da. Berak eskainitako informazioak berebiziko garrantzia izan du erreportajea egiteko; hainbat informazio iturriren kontaktuak erdiesteko eta testua bera aberasteko, batik bat. Eskainitako informazio gehiena sortze prozesuan dagoen eskola horren ingurukoa izan zen, eta orduan erabaki nuen hobe zela bere aiupak erreportajearen ez txertatzea. Hala ere, Vela informazio iturri ezinbestekoa izan da lan honetan.

Iturri dokumentalak:

Liburu eta artikulak:

- Ablanedo Larrion, A. (2018). "Eskola onaren dekalogo". *Argia*, urriaren 28a, or.18. Eskuragarri hemen: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2618/eskola-onaren-dekalogo> [Kontsulta eguna: 2020/03/11]
- Alirío Pérez, A., Africano Gelves, B. B., Fébres-Cordero Colmenárez, M. A., & Carrillo Ramírez, T. E. (2016). "Una aproximación a las pedagogías alternativas". *Educere* 20 (66), or. 237-247. Eskuragarri hemen: <https://www.redalyc.org/pdf/356/35649692005.pdf> [Kontsulta eguna: 2020/02/20]
- Bona, C. (2016). *La escuelas que cambian el mundo*. Bartzelona: Plaza & Janes.
- García, A. (2017). *Otra educación ya es posible*. Albuixech: Llitera.
- Menchén Bellón, F. (2013). "La educación alternativa. La escuela galáctica". *Creatividad y sociedad: revista de la Asociación para la Creatividad* 21, or. 25. Eskuragarri hemen: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4785462> [Kontsulta eguna: 2020/03/04]
- Méndez, M. (2007). "Hacia una propuesta de educación alternativa". *TEORIA Y PRAXIS* 11, or. 64-79. Eskuragarri hemen: http://201.131.110.78/jspui/bitstream/10972/899/1/educaci%C3%B3n_alternativa.pdf [Kontsulta eguna: 2020/03/18]
- MONTESSORI, Maria. (1999, urriaren 1a). Eskuragarri hemen: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/19991001/montessori-maria> [Kontsulta eguna: 2020/03/10]
- Rebeca eta Mauricio Wild. (2017, apirilaren 1a). Eskuragarri hemen: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20170401/rebeca-eta-mauricio-wild> [Kontsulta eguna: 2020/03/11]
- SUMERHILL, SUTHERLAND NEILL, Alexander. (1999, azaroaren 1a). Eskuragarri hemen: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/19991101/summerhill-sutherland-neill-alexander> [Kontsulta eguna: 2020/03/10]
- Waldorf eskolak. Haurraren garapen naturala. (2006, apirilaren 1a). Eskuragarri hemen: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20060401/waldorf-eskolak-haurraren-garapen-naturala> [Kontsulta eguna: 2020/03/11]

Web orrialdeak:

- Ane Ablanedoren webgunea, eskuragarri hemen: <http://www.aneablanedo.com/>
- Eskola Txikien webgunea, eskuragarri hemen: <https://www.eskolatxikiak.eus/>
- Haziz Hazi elkartearen webgunea, eskuragarri hemen: <https://www.hazizhazi.org/>
- Ludus direktorioaren webgunea, eskuragarri hemen: <https://ludus.org.es/es>

Telebista saioak:

- Euskal Telebistako lehen katean, “Ur Handitan” saioan eskainitako erreportajea: “Gurasoen apustua”. Emisio data: 2017ko azaroaren 7a.

Ikus-entzunezkoak:

- Moreno, Sara (Ekoizle eta zuzendaria) (2015). *Enseñame pero bonito* [Dokumentala]. Espainia: autoekoizpena. Eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=bYZJD-aUN0A> [Kontsulta eguna: 2020-02-14]

4. Edukien antolakuntza

Erreportajearen muina Areta, Laso eta Cadiernoren testigantzetan oinarritua dago, horiei esker lortu dudalako eskola alternatiboen errealitatea ezagutzea. Beraz, erreportajea beraien adierazpenen inguruan ardatzen da.

Lehen atalak eskola horien jaiotza, ezaugarriak eta filosofia azaltzea du helburu. Hor beraz, hiru protagonista nagusien ahotsak nabarmentzen dira, eskola bakoitzean nola funtzionatzen duten adieraziz. Jarraian, gurasoen esperientziak bildu ditut, izan ere, eskola horiek nolakoak diren azaldu ondoren garrantzitsua iruditu zitzaidan horien aldeko apustua zergatik egiten den erakustea.

Horren ondoren, erreportajearen bigarren atala izango genuke. Sistema alternatibo eta tradizionalaren arteko ezberdintasunak azaltzea da atal horren helburua, eta era berean, Bigarren Hezkuntzarako jauzia nolako den argitzea. Izan ere, eskola alternatibo gehienek ez dute DBH-ko zikloa eskaintzen eta, egoera horretan, sistema tradizionalera jauzia egitea da aukera bakarra. Azken hori islatzerakoan, ondoren ikasleen ahotsak sartzeari ezinbestekoa iruditu zitzaidan, beraiekin hitz egiterakoan hori izan zelako gehien nabarmentzen zutena: jauziaren zailtasuna eta horrek eragindako sentazio guztiak.

Testu nagusiarekin amaitzeko, etorkizunera begira eskola alternatiboek duten egoeraren berri ematea erabaki nuen, izan ere, legetik at dauden eskolak dira, ez dute diru laguntzarik jasotzen eta Hezkuntza Sailak ez ditu proiektuak balioesten.

Zatidurei erreparatuz, lehen esan bezala, testu nagusia osatzeko balio duten edukiak txertatu ditudala esango nuke. Izan ere, pedagogien berri edukitzea gaia ulertzeko oso lagungarria da, Ane Ablanedoren elkarrizketa hezkuntza alternatibo eta tradizionalaren arteko aldeak ikusi eta hausnartzeko bidea da, Eskola Txikien errealitateak sistemaren barnean hezkuntza ezberdin bat posible dela adierazteko balio du eta Homeschooling-a, aldiz, hezkuntza sistema araututik kanpo ikasteko beste modu batzuk ere daudela islatzeko aproposa da.

5. Erreportajearen eta memoriaren idazketa

Martxotik apirilera bitartean egin nituen elkarrizketak, Zingira eskolarena izan ezik, aipatu dudan moduan azken orduko aldaketak egin behar izan nituelako eta beraientzat ezinezkoa zelako maiatza baino lehenago hitzordua egitea.

Elkarrizketak egin ahala transkribatu nituen, idazteko momentua heltzerakoan informazio guztia paperean izateko eta prozesua errazagoa izateko. Aurretik aipatu bezala, hamabi elkarrizketa horietatik lau gaztelaniaz egin ditut eta esfortzua bikoitza izan da, itzultzeak lana eskatzen duelako.

Testu nagusian zehar hiru iturri nagusiei, Areta, Laso eta Cadiernori, eman diet garrantzi gehien, guraso eta ikasleen ahotsak ere gehitu ditudan arren. Hiru eskolen testigantzak dira erreportajearen gidari.

Idazketa momentua izan da gehien gozatu dudana. Behin elkarrizketak eginda, iturri guztiek kontatutakoa batu, adierazi eta egituratzea izan da lanik zailena, baina era berean, indargarriena.

6. Zuzenketak

Nire tutorearen aholkuei jarraiki erreportajea argiagoa izateko aldaketa batzuk egin ditut, batez ere zatidurei dagokienez.

Lehenago esan dudan moduan, Haziz Hazi elkarteko kide Ruben Gallego elkarrizketatu nuen. Elkarrizketa horren bidez eskola alternatiboak saretzea helburu duen elkarteak ezagutu nuen, Gallegok elkartearen helburuen eta antolatzen dituzten ekintzen berri eman zidan, besteak beste. Kontatutakoa zatidura batean sar nezakeela pentsatu nuen eta horrela egitea erabaki nuen azkenean. Dena den, erreportajea amaitzerakoan, tutoreak esandakoari men eginez, aldaketak egin nituen.

Pedagogiei lotuta doan zatidura testuaren barnean zegoen hasiera batean, baina tutoreak lau pedagogien inguruko informazioa testu nagusian sartzeak erreportajearen erritmoa apur zezakeela esan zidan. Beraz, bere gomendioei jarraiki, pedagogien atala testu nagusitik atera eta zatidura batean jarri nuen. Orotara, bost zatidura nituen une horretan

eta gehiegi zirenez, Haziz Hazi elkarteari eskainitako zatidura kanpoan uztea erabaki nuen.

Ane Ablanedoren zatiduran ere aldaketa batzuk egin behar izan nituen. Galdera guztiak sartuta elkarrizketa luzeegia geratzen zen, gainera erantzun sakon eta landuak eman zizkidan galdera guztietan. Hortaz, elkarrizketa laburtu behar izan nuen.

Ondorioak

Erreportaje hau graduko lau urteetan egin dudan lanik osatuena dela uste dut. Menperatzen ez nuen gai bat lantzea erabaki nuen eta hori erronka bat izan da niretzat. Ez nuen ezagupenik eskola alternatiboen inguruan, interes hutsak eraman ninduen gai hau lantzera. Bide horretan, graduan zehar landu ditudan eduki teorikoak praktikan jarri ditudala esango nuke. Izan ere, elkarrizketatuen hitzak errespetatzeaz gain, elkarrizketak egin aurretik gaia ezagutu eta informatzeak duen garrantziaz jabetu naiz, dokumentazio lanaz, alegia.

Aurretik aipatu bezala, koronabirusak eragin duen egoera dela eta, ezin izan ditut elkarrizketak aurrez-aurre egin, eta horrek pena handia ematen dit, bereziki hiru eskolak ezin izan ditudalako nire begien bidez ezagutu. Elkarrizketatuek argazkiak erakutsi eta eskolen deskribapen fisikoak egin dizkirate, hala ere, gogoekin geratu naiz. Aurrez-aurreko kontaktua gainera oso aberasgarria dela pentsatzen dut, elkarrizketatuaren begirada edo keinuek galdera berriak sortzeko aukera ematen dutelako askotan. Ahotsa bakarrik entzutean ez dakizu segurtasun osoz elkarrizketatua gustura geratu den erantzundakoarekin edo zerbait gehiago esateko gogoia duen. Egia da, Skype bidez elkar ikusteko aukera izan dugula, behintzat aurpegia jartzeko. Dena den, ezin da bideo-deia aurrez-aurreko kontaktuarekin alderatu.

Horrez gain, erreportaje hau egiteak hezkuntza sistemaren inguruan hausnartzera eraman nauela aipatu nahiko nuke. Memoria honen hasieran esan dudan bezala, nik ez dut erreportaje hau egin arte egun indarrean dagoen hezkuntza sistema zalantzan jarri, ez nion gabeziarik antzematen. Elkarrizketatu guztiengandik jasotako adierazpenek ordea, hezkuntzaren inguruko gogoeta egitea eragin didate eta benetan aberasgarria izan da niretzat beraiekin hitz egin, eta hezkuntza tradizionalak hobetu beharko lituzkeen alderdiez jabetzea.

Eskerrak eman nahi dizkiet beraz, guztiei. Lan honen parte izanagatik eta bestelako hezkuntza bat posible dela erakusteagatik.

Eranskinak

Aurretik aipatu bezala, Gipuzkoan Haziz Hazi elkarteko ordezkari Ruben Gallegori elkarrizketa egin nion. Berak esandakoarekin behean dagoen zatidura osatu nuen, erreportajetik at geratu dena.

Babesleku diren elkarteak: Haziz Hazi

Haziz Hazi elkarteak 2016. urtean jaio zen eta ordutik elkargune bilakatu da ohiko hezkuntza sistematik at kokatzen diren proiektu askorentzat. Elkarteak behar ezberdinekin erantzunez sortu zen baina guztietan garrantzitsuena, eskola alternatiboaren arteko sare bat lortzeko premia izan zen, erakundearen aurrean oinarri eta presentzia sendo bat eduki zezaten.

Euskal Herri mailako hogeitalau proiektu ezberdinek osatzen dute uneotan Haziz Hazi, baina bazkideek ez dute muga geografiko zurrunik jartzen. Hau da, elkarteak ateak irekita ditu Euskal Herriko mugetatik kanpo dagoen edozein proiektu berritzailearentzat.

Haziz Hazi-ko ordezkaria da Gipuzkoan Ruben Gallego eta berak elkarteak hezkuntza, bidelaguntza eta haziera sare bat dela azaldu du. Sare horrek behar bezala funtziona dezan helburu ezberdinak dituzte zehaztuta, horien artean, administrazio eta erakundeekin hitz egiteko tresna bilakatzea. Izan ere, erakundeekin errespetuzko marko legal bat eskatzerako orduan elkarte moduan aurkezteak oinarri eta presentzia sendo bat edukitzea ahalbidetzen diela azaldu du Gallegok. Horrez gain, hezkuntza aktibo, libre eta alternatiboaren inguruko dibulgazio lana egitea bilatzen dute, horretarako jardunaldiak, hitzaldiak, ikastaroak edota tailerrak antolatu eta eskainiz. Finean, jomuga nagusiak elkartearen batasuna eta ikusgarritasuna lortzea direla aitortu du.

Elkarteak, proiektu ezberdinen arteko ezagutza sustatu eta kanpora begira ikusgarritasuna lortzeko bidean, ekintza ezberdinak antolatzen ditu urtean zehar. Guztietan ezagunena JolasGUNEa da: “Maiatzaren 28an, Jolasaren Nazioarteko Egunean, JolasGUNEa deituriko festa eguna antolatzen dugu, elkartearen bazkide guztiek parte hartzen dute eta bakoitzak bere proiektuaren inguruko informazioa eskaintzeko aukera du”. Eskola alternatiboak ezagutzeko egun “ezinhobea” dela azaldu du Gallegok, hezkuntza berritzailearen inguruan interesa duen edonor pasa baitaiteke.

JolasGUNEaz gain, badira aurrera eramaten dituzten beste jarduerak batzuk ere, hala nola Jolas TOURa, sarearen parte diren eskola ezberdinetara bisitak egiteko tourra edota JolasBIDEa, hezitzaile eta hezkuntza arloko ikasleentzat gidatutako jardunaldi pedagogikoak.

Haziz Hazi beraz, hezkuntza sistema tradizioaletik kanpo dauden proiektuak ezagutu, antolatu eta babesteko sare bat da, etorkizunera begira indarra lortzeko baliagarri suerta daitekeena.